



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko ekainaren 3an

49 ZK.

### A U R K I B I D E A

F S A I L A:

**Galderak:**

- Iruñerrian lurzoruaren alorrean presakoak diren neurriei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Iruñerrian lurzoru sailkatuetan eskuhartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Lurzoruaren ondare publikoen garapenari eta kudeaketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Etxebizitza planak lurzoruaren arloan dituen helburuak lortzeko aurreikusi diren jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Ehiza debekualdiei buruzko foru agindua eta kontrapasako ehizari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Babestutako etxebizitza publikoen sustapenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Nafarroan izan den atzerriko inbertsioaren jaitsierari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Foru Komunitateko administrazio publikoek aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak erabiltzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Etxebizitza eskuratzeko laguntzen sistemari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Behar handiena duten jende multzoek etxebizitza eskuratzeko errazteko jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Etxebizitza Planaren lurzoruaren azterketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak egin dituen iradokizunei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Oftalmologia zerbitzuan ortoptika ariketak eteteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuak egin dituen iradokizunei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).

- Erriberako urritu fisikoen elkarteak, Amimet-ek, eginiko salaketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Radio Riberak irratsaioak emateko erabiltzen duen lokalaren lagapena ez luzatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Bideko Ama Birjina Ospitaleko langileen janzkera aldatu izanari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Barañaingo Emakumearentzako Laguntza Unitateari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Estatuko Tributu Agentziak antzemandako zerga-iruzurrari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Hurrengo menderako tabakorik gabeko gizartearen aldeko manifestuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Zakurren borrokak erauzteko hartutako neurriei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Zakurrak identifikatzea dela eta, izapidatutako zehapenei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Mikrotxipa irakurtzekoaren gutxi gorabeherako kostuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Mikrotxipik ez daramaten zakurren kontrolari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Zangoza, Etxarri-Aranatz eta Elizondo eskualdeetako emakumeen osasun laguntzari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Burlatako osasun etxea handitzeko proiektuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- Herrilan Kontseilaria buru duen “Batzorde politikoa”ri buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- Belateko tunelak ezkatatzea eragin duten arrazoiei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Itoizko saihebidetako obrei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- Nafarroako Gobernuak eta RTVE ente publikoak Nafarroako lurralde-zentroaz izenpetu zuten hitzarmena birnegoziatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- Nafarroako Gobernu ELA eta LAB sindikatuarekin bildu ez izanari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
- 1998an, kalitatea, diseinua eta konpetibitatea hobetzeko dirulaguntzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).
- Ekonomia Zuzendari Orokorrek emandako 201/98 Ebazpenak agintzen duen aurrekontu aldaketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).
- Foru Administrazioaren ordenadoretan “2000 ondorioa” saihesteko aurreikusitako jarduketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).
- 1997an, isurkinen kalitatea hobetzeko neurriak hartzeko dirulaguntzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (44. or.).
- 1998an, isurkinen kalitatea hobetzeko neurriak hartzeko dirulaguntzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (45. or.).
- Zoliako hiri bioklimatikoan energia berriztagarriak erabiltzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (46. or.).
- Naturaren interpretazio zentroen ezartze eta garatze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (47. or.).
- Abuztuan Imarkoainen izandako uholdeengatik kaltetuek eskatutako kalteordainei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (50. or.).
- “José M<sup>a</sup> Iribarren” ikastetxeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (51. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Iruñerrian lurzoruaren alorrean presakoak diren neurriei buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Iruñerrian lurzoruaren alorrean presakoak diren neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 23an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Iruñerrian lurzoruaren alorrean presakoak diren neurriei” buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna.

1.- Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak bizitzeko zabalgunek definitzeko Iruñerrian? Eta horiek programatu eta garatzeko?

Nafarroako Gobernuak Iruñerrian bizitzeko zabalgunek definitzeko, gure foru araubidean dagoen eta ordenazio osoa egiteko aukera ematen digun lurraldea planifikatzeko baliabide bakarra erabili du: aipaturiko Eskualdeko Hirigintzako Arauak, hain zuzen. Duela gutxi, aipaturiko arauk jendaurreko partehartze- eta entzute-prozesua jasan dute toki entitateen aldetik, eta aurreikusita dago horiei behin betiko onespena ematea laster.

2.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, lurzoru ez-urbanizagarriaren erre-

serbak ezartzeko balizko erabilera publikoa izan dezaten etorkizunean?

Lehen aipaturiko Iruñerriko Eskualdeko Hirigintzako Arauak behin betiko onesten direnean, bidezkoa bada, aipaturiko erreserbak definitzeari ekinen zaio, eta litekeena da hori egitea foru legeriaren erreforma egin eta gero, zeren gaur egungo legeriak (apirilaren 13ko 6/1998 Legea indarrean sartuz geroztik), lurzoruari eta balorazioei buruzkoak, zenbait zalantza planteatzen baititu neurri horien eraginkortasuna dela-eta.

3.- Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, etxebizitzak erakitzeke gaitzat jo diren eskualdeetako garapen-planak sustatzeko?

Alor horiek tokiko plangintzak berriztatuz garatu daitezke, bai eta udalez gaindiko plan sektorialak bultzatuz ere.

Jada abian jarrita dago lehen ekimena, Sarri-gurengoa hain zuzen ere. Kasu honetan, hitzarmen bat izenpetu da duela gutxi Nafarroako Gobernuaren eta Eguesibarreko Udalaren artean. Horren arabera, garapena lortu nahirik halako hitzarmen bat bilatu da, 1,5 kilometro karratu inguru dituen azalera oinarrituta. Horra hor aipatu beharreko beste ekimen batzuk: Zolinan bultzaturiko bizitzeko zabalguneko bioklimatikoak, eta Mendilloriko laugarren fasearen exekuzioa (Udalez Gaindiko Plan Sektoriala onartu eta dagokion urbanizazio proiektua ere tramitatuz).

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## Iruñerrian lurzoru sailkatuetan eskuhartzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Iruñerrian lurzoru sailkatuetan eskuhartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 23an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Iruñerrian lurzoru sailkatuetan eskuhartzeari” buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna.

1.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak Mendillorriko laugarren fasea deritzen jarduketetan, adskripzioan eta etxebizitza-kopuruan, batez ere?

Nafarroako Gobernuak Mendillorriko Udalez Gaindiko Plan Sektoriala izapidetu eta behin betiko onetsi du, jada eraikita dauden faseak eta urbanizazioaren laugarren fasea bertan jasota baitaude. Eta jarraian urbanizazio proiektua egin du (Iruñeko udalari abuztuan eman zitzaion, egin beharreko izapidea egin zezan).

Aurreikusita dago 643 etxebizitza egitea.

2.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak Ezkabako bidea-ubidea aldean, Iruña eta Antsoainen artean? Zenbat etxebizitza?

Denboraldi horretan Nafarroako Gobernuak ez du zuzenean esku hartu Ezkabako jarduketa urbanistikoan, dagoen fasean egonda arduratzen Iruñeko Udalarena delako. Izan ere, aipaturiko plan orokorra aldatu eta gero, gaur egun plan bateratu bat prestatzen hasi dira Antsoaingo Udalarekin batera.

Aurreikusitako dago bertan gutxi gorabehera 1.400 etxebizitza egitea.

3.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako

ko Gobernuak Iruñeko Gipuzkoa etorbidean dagoen industri lurzoruan? Zenbat etxebizitza hartzeko moduan?

Gai horri buruz elkarrizketa ugari egin izan da Iruñeko Udalarekin, eta garbi geratu da udalak udazken aldean ekinen diola Iruñeko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa zein egungo erabilera aldatzeko plan partziala, etxebizitzarako izanen baita, tramitatzeari.

Eraikigarritasunari buruzko datuak hirigintzako planeamenduan finkatuko badira ere, aurreikusita dago 3.500 etxebizitza inguru egitea.

4.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak Uharte-Iruñeko Ugarrandia aldean? Zenbat etxebizitza hartzeko moduan?

Uharteko Udalak Ugarrandiako Plan Partziala prestatu du, zeinaren tramitazioari esker posible izango baita 900 etxebizitza inguru eraikitzea. Udalarekin hainbat bilera egin dira, eta Gobernuak udala premiatu du babes ofizialeko etxebizitzaren erreserbaren portzentajea ahalik eta handiena izan dadin. Beraz, argi eta garbi frogaturik geratu da bi administrazioek duten interesa etorkizunean hitzarmen bat lortzeko. Izan ere, horrek lurzoru publikoa mobilizatu eta eskuratzeko aukera emanen liguke, eta baita alokairu alorreko jarduketak eta gazteentzako eta erosketetarako ekimenak bideratzeko ere, VINSAREN parte-hartze posiblearekin.

5.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak Berriozarko ER Planean? Zenbat etxebizitza hartzeko moduan?

1998an, Nafarroako Gobernuak, Berriozarko Udalarekin izenpeturiko hitzarmenaren bidez, lurzorua eskuratu du ER sektorean; eraikigarritasuna, guztira, 170 etxebizitza ingurukoa da bertan. Izan ere, Vinsa enpresaren ekimenez sustatua izan den poligono horretan, 1.000 etxebizitza eraikitzen ari dira; horietatik 300 VINSAK sustatzen ditu, erosteko eta errentan eskaintzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## Lurzoruaren ondare publikoen garapenari eta kudeaketari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak lurzoruaren ondare publikoen garapenari eta kudeaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 23an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Lurzoru ondare publikoen garapenari eta kudeaketari” buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna.

1.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak informazio-sistema sortzeko, non 2000 biztanletik goitiko toki entitateetan diren luzoru ondare publikoak jasoko diren? Informazio hori eskura al dago gaur egun? Noizko izanen da eskura?

1997az geroztik, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak proiektu bat lantzen dihardu; lurraldeari eta hirigintzari buruzko informazio-sistema lortzea du helburu, eta 2002. urterako amaituta egon beharko du. Lurzoruen kastastroko titulartasuna udalarena edo Foru Komunitateko Administrazioarena den jakiteko aukera izatea aurreikusita dago.

2.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak lurzoru ondare publikoak arautzeko legedia egiteko?

Gaur egun, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan lege-proiektu berria hasi dira lantzen lurraldeko eta hirigintzako ordenamenduari buruz; horietako kapitulu batean arautzekoak dira aipaturiko onda-

re publikoak, eta aipaturiko araubidea orientatzeko orduan; hala ere, ez da baztertzeko horietan oinarrituriko legea ateratzea.

3.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak 2000 biztanle baino gehiago dituzten udalei derrigorrezko aitortzen prozedura ezartzeko, urtero aitortzen ondarean izandako aldaketak?

Gai honetan, Toki Administrazioako Departamentuarekin harremanetan jarri gara, prozedurarik egokiena diseinatzeko. Edozein modutan, lehen aipaturiko lege-erreferentzia gauzatu artean ez da prozedurarik ezarriko.

4.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak arauarekin bat ez etortzeak saihesteko, besterentzeen gaineko kontrol-sistema ezarri?

Galdera honi zor zaion erantzuna aurrekoetan dago emana.

5.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer azterlan burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak Komunitateko Aurrekontu Orokorretik urteko gutxieneko kopuru finko bat ezartzeko lurzoruaren ondare publiko berekia eratzeko?

Lurzoruaren ondare publikoa eratzeko Nafarroako Aurrekontu Orokorretik urteko gutxieneko kopuru finko bat ezartzea, logikoa denez, epe ertainerako Nafarroako Gobernuak egin plan ekonomikoetan jasotzea aurreikusita da. Azken agirian, 1997-2000 denboraldirako esleitutako kopuruak ondokoak dira:

1997	1998	1999	2000
1.200 M. PTA	1.200 M. PTA	1.200 M. PTA	1.200 M. PTA

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## **Etxebizitza planak lurzoruaren arloan dituen helburuak lortzeko aurreikusi diren jarduketei buruzko galdera**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak etxebizitza planak lurzoruaren arloan dituen helburuak lortzeko aurreikusi diren jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 23an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Etxebizitza planak lurzoruaren arloan dituen helburuak lortzeko aurreikusi diren jarduketei” buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna.

1.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak lurzoru-lehiaketak, haien urteko definizioa eta deialdia hobetzeko?

Aurreikusita dago –hala behar du gainera– abenduaren 21eko 14/1992 Foru Legearen zazpi garren xedapen gehigarriak erakusten duen ildotik jarraitzea. Izan ere, etxebizitzaren arloan babeste-koak diren jarduketan sistema eta ekimenen finantziario-ereduak arautzen ditu lege honek. Labur esanda, hona hemen baloratu beharrekoak:

- Sustatzaileen gaitasun teknikoa eta kaudimena.
- Sustapenaren ezaugarri sozioekonomikoak.
- Arkitektura-proiektuen kalitatea.

Lurzoruaren eskaintza egiteko, urbanizaturiko lurzoruaren prezioak finkoa izan behar du –goranzko nahiz beheranzko gorabeherarik gerta ez dadin–, eta lehen adierazitako puntuak kontuan hartu behar dira beti.

Proposamenen puntuazioa ahalik eta modurik objektiboenean egin nahi da; horrela, lehiakideek beti jakinen dute zein baremo aplikatzen zaien eta zein neurritan ordainduko zaizkien proposamene-

tan eginen dituzten ahaleginak (ordainketa-baldintza hobeak, instalazioak, materialak, etab.).

Borondate honen erakusgarri, 1997ko uztailaren esleitutako lurzoru publikoaren azken lehiaketa ekar daiteke gogora, ahalegin handia egin baitzen baldintza orrien elaborazioa hobetzeko. Orduko hartan Iruñeko Udalak, Arkitektoen Elkargoak zein Eraikitzaile eta Sustatzaileen Elkarteak parte hartu zuten, eta guztien adostasuna lortu zen.

Eginiko hobekuntzak hobeto azaltzeko, merezi du puntu hauek aipatzea: eska daitekeen dokumentazioa gehitu zen; balorazio-irizpideak zehaztuago daude; kalitatearen eta obra-kontrolaren aldeko alderdiak gehiago hartzen dira kontuan; babesik gabeko taldeei etxebizitzak erreserbatzen zaizkie; 70 m<sup>2</sup> baino gutxiago dituzten etxebizitzak eraikitzera bultzatu da; 112 etxebizitza errentan emanen direla ziurtatu da; eta lurzoruak esleitzeko orduan, prozedura berria asmatu zen garrantirik handiena eskaintzeko (11 lurzoruak 11 sustatzaile desberdinen artean banatu ziren, enkantera ateratako lurzoru publikoaren banaketarik handiena ziurtatzeko).

2.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak etxebizitzaren sustatzaileen erregistro publikoa sortzeko? Noizko aurreikusi du erabili ahal izanen dela?

Babes Ofizialeko Etxebizitza Sustatzaileen Erregistroa egunen batean osatzeari begira, proiektu bat burutu da. Bertan idatziz jarrita egonen dira babes ofizialeko etxebizitza-sustapenerako berez interesgarriak diren datuak, besteak beste, hurrengoak: osaketa, estatutuen aldaketa, apoderatzea, etab.

Gaia aztertzen jarraitzen da; laster, ukitutako pertsonen ordezkariekin eztabaidatuko da, eta hurrengo urtean abian jarriko delakoan gaude.

3.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak lurzoruaren merkaturia mugiarazteko, hirigintza-legediak aurreikusi dituen hertsapen-neurriak erabiliz?

Lurzoruaren merkaturia mugiarazteko hertsapen neurriak (esaterako, lurzoruari buruzko 1990 eta 1992 urteetako estatu-legerian ezarrita daudenak) erabili eta ez dira lortu itxaroten ziren emaitzak, batez ere, toki administrazioek neurriok behar



bezala aplikatu ez dituztelako (aplikazio horri oso konplexu eta zaila irizten zioten, eta baita neurrigabea ere, kasu askotan).

Aipaturiko mugiaraztea lortzeko, gaur egun, administrazioek bi ildo jorratzen dituzte batik bat –biak desberdinak, baina bateragarriak–: alde batetik, garatu beharrekoak diren unitateak kudeatzeko orduan, ekimen publikoa areagotzen da, kudeatzeko tresna nagusi gisara lankidetzaren sistema erabiliz eta administrazio autonomikoak, toki administrazioekin hitzarmenak eginda, prozesuetan parte hartuz. Beste alde batetik, ekimen pribatu profesionalak ere lurzoruaren kudeaketa prozesuetan parte har dezala bultzatzen da, hari erraztasunak eta pizgarriak eskainiz.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak lanean dihardu, gaur egun lurraldeari eta hirigintzari buruzko legedia berria idatzi nahirik. Jardun horretan, aipatutako bi ildoak hartzen dira kontuan, lurzoruaren merkatur mugiaraziko duten neurri eraginkorrak ezartzearen.

4.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak toki entitateak gai hauetan sentibertzeko eta hezitzeko?

Udalei eskaini beharreko aholkularitzaren aldeko jarrera ekarri du abenduaren 9ko 363/1997 Foru Dekretuak. Horretarako, etxebizitzak eta eraikinak Zaharberritzeko Eskualdeetako Bulegoen azpiegituraz baliatu eta hainbat alderdi bultzatu ditu: besteak beste, planeamentuaren kalitatea, kudeaketa eta toki entitateen hirigintza-garapen; bide batez, gai horien garrantziaz jabetzeko ere balio izan du. Hori guztia sailkatu beharra dago, noski, foru eta toki administrazioen arteko koordinazioa hobetzearen barruan.

5.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak lurzoruari eta etxebizitzaren ekoizpen eta eskariari buruzko informazio-sistema eskuratzeko?

1997az geroztik, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak 2002. urterako bukatuta egon beharko duen eta lurraldeari eta hirigintzari buruzko sistema lortzea

helburu duen proiektua garatu du. Aldi berean, “300 egun egitarauaren” barruan, etxebizitzari buruzko datu baseak hobetu egin dira; horri esker, etxebizitza produkzioari jarraipen hobea egin dakioke. Etxebizitza eskaintza aztertzeko, herritarrei eginiko inkestetan oinarritu da. Azken inkesta 1996an egin zen.

6.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, udalekin hitzartzeko poligonoak eta plangintza unitateak finkatzeko, eragile pribatuek partehartze handiagoa izan dezaten lurzoru eta etxebizitza arloetan?

Toki eskumena da hirigintza planeamenduak sailkatu dituen industrialdeetan jarduketak programatzea. Lehen adierazi denez, legeria aldatuz, Administrazioarekin hitzarmenak egin daitezke edo eragile pribatuek poligonoen edo jarduketaren unitateen kudeaketan partehartze aktiboagoa izateko neurriak hartu; Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, hain zuzen ere, horretan dihardu. Horretaz gain, hainbat hitzarmen ere izenpetzen ari dira toki entitateekin (Egües eta Arangurengo Udalak), bizitzeko esparru berriak (Sarriguren eta Hiri Bioklimatikoa) garatzeko, halako ekimenak dagoeneko aurreikusita baitaude Foru Komunitateko Administrazioaren ondare publikoko lurzoruaren (Mendillorriko 4. fasea), eta oro har, lurzoru berrien gainean, eragile pribatuen eta lurzoruak dauden toki entitateen arteko hitzarmengintza ari da bultzatzen.

7.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak partzuergoak eratzeko, urbanizatzeko eta eraikitzeke unitateen garapen konkreturako? Zer entitateekin? Zer kasutan?

Orain arte bat ere ez, aipaturiko partzuergoak eratu ahal izateko ezinbestekoa baita gaurko legeria aldatzea, eta horretan dihardugu gaur egun.

Hori guztia jakinarazi Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## **Ehiza debekualdiei buruzko foru agindua eta kontrapasako ehizari buruzko galdera**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak ehiza debekualdiei buruzko foru agindua eta kontrapasako ehizari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 23an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Ehiza debekualdiei buruzko Foru Aginduari eta kontrapasako ehizari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna.

1.- Noizko aurreikusi du, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Kontseilariak ehiza debekualdiei buruzko aipaturiko foru agindua argitaratzea? Zer desberdintasun ditu aurtengo kanpainarako proposamenak iazkoarekin? Arautzen al du foru agindu horrek kontrapasan ehizatzeke aldia eta sistema? Edozein modutan, zergatik sartu da edo ez da sartu?

1998-1999an ehiza arautzen duen foru agindua 1998ko ekainaren 6an izenpetu zen (747 Foru Agindua). Araubide hau prestatzeko orduan izan diren berritasunak direla eta, esan behar da ezen, proposamena prestatu zuen Ehiza-Aholkularitza Batzordean, talde ekologistek eta ehiztarien ordezkariak hartu zutela parte. Proposamenaren alderik aipagarriena, berriz, denek erakutsitako bateratasun-maila handia izan da. Aurreko araubidearekin alderatuta, aurtengo kanpainatik kanpo geratutako hegaztiak ditugu aipagarri: esaterako, ahate txistularia, ahate buztanluzea, uda-zertzeta, istingor txikia eta basa haitz-usoa. Orobat, aldaketa batzuk izan ziren urhegaztiak eta usapal arrunta ehizatzen hasteko sasoi-proposamenetan, eta untxi- zein erbi-ehizari dagokionez ere hainbat aldaketa izan ziren.

Aipaturiko foru aginduaren barruan ez dago araututa kontrapasako ehiza noiz eta nola egin behar den. Basa-fauna eta bere habitatak babestu

eta kudeatzen dituen martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen 5/1998 Foru Legearen edukian bertan dago horren arrazoia. Aipaturiko 2/1993 Foru Legeko 9.1 artikuluan esaten da behar-beharrezkoa dela alde zuzenetik baimena izatea, 8. artikuluko debekuak ondorioz gabe utzi ahal izateko. Lege berak baimena ematen du, aipaturiko administrazio-baimenaren ordezkari, Nafarroako Aldizkari Ofizialean agertu beharko diren xedapen orokorrak emateko; baina Departamentuak uste izan du egokiagoa dela kontrapasako ehizaren baimena eta araudia deberdintzea, ohiko Ehiza Debekaldien Aginduan islatzea baino.

2.- Nafarroako Gobernuak Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Kontseilariak jakin al du Europako Batasunak jarrera aldaketarik izan duen kontrapasa ehiza sistemari buruz? Erantzuna ezezkkoa bada, eskatu al du txostenik Departamentuak? Erantzuna baiezkoa bada, zer esan dute erakunde horiek gai horri buruz?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, ari garen gaiari dagokionez, ez daki Europako Batasunak ekimen berririk egin duen edota iritzi ofizialik badagoen. Halaber, aipaturiko departamentuak ez du beharrezkotzat jo Europari txostena eskatzea, batez ere zeuden aurrekinak kontuan izanda: baldintza jakinetan kontrapasan ehizatzeke baimena ematen duen estatuko legea eta gai hori arautzen duen foru legea.

3.- Kontrapasa baimentzeko Nafarroako Gobernuaren proposamenak, Nafarroako Ingurugiro arloko Kontseiluak onetsitakoaren arabera, 250 posturentzako baimenak ematea ezartzen zuen. Egia al da, ehiztarien elkarteek esaten dutenaren arabera, Departamentuak postu tradizionalak aztertu ondoren milaren bat postu daudela? Edozein modutara, zer irizpide pentsatu du jarraitzea Ingurugiro Departamentuak aipaturiko postuak baimentzeko?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Nafarroan kontrapasako ehiza garatzeko proposamen bat landu zuen, eta kontuan hartu zituen basa-hegaztiak babesteko Europako zuzentarauak ezarritako irizpideak, zein gai horri buruzko estatuko legedia eta foru legea. Aipaturiko proposamena eztabaidan jarri zen 1998ko otsailaren 10ean eginiko Ehiza Aholkularitza Batzordean. Bilera hartan, inguru



bakoitzean baimendu beharreko uso-postuei buruzko proposamen dokumentatua aurkezteko eskatu zitzaien ehiztarien ordezkariari. 1998ko ekainaren 4an eginiko Ehiza Aholularitza Batzordeko bileran, ehiztarien ordezkariak egindako proposamenak jaso ziren. Hainbat iradokizun ere egin ziren, kontrapasako ehiza modu egokian egingo dela ziurtatzeko. Ehiztarien ordezkariak onesteko proposatu dituzten postuak mila baino gehixeago izan dira. Halaber, egia da kontrapasako ehizaren etorkizuna eztabaidatu eta erabaki beharra dagoela; eta, zalantzarik gabe, erabili beharreko irizpideak lege hauekoak dira: basa-hegaztiak babesteko Europako zuzentaraukoak, estatuko legediakoak eta foru-legediakoak.

4.- Halaber, Nafarroako Gobernuak kontrapasako ehiza baimentzeko eginiko proposamenak muga ezartzen zuen, postu eta eguneko 6 usoren muga hain zuzen. Egia al da Ehiza arloko Kontseiluak, baimendutako ehiza-aldi guztirako onestitako proposamena, postu eta eguneko 6 uso zela, batezbeste? Kontrapasan, zenbat uso ehizatzea baimenduko du proposamen horrek? Nafarroako

Gobernuak kontrapasan ehizatzeko baimendutako kopurua, 2000, gainditzen al du? Zein da Ingurugiro Departamentuaren irizpidea?

Lehen ere azaldu dugunez, 1998ko ekainaren 4an Ehiza Aholkularitza Batzordeak eginiko bileran, zenbait proposamen alternatibo aurkeztu ziren Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak berak eginikoen orde. Aipaturiko alternatibak aztergai daude gaur egun, eta, hargatik, oraindik goizegi da horiei buruzko iritzirik emateko. Edozein modutan, Departamentuaren iritziz, zorrotz bete behar da basa-hegaztiak babesteko Europako zuzentarauak, estatuko legediak eta foru-legediak ezarritakoa.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## Babestutako etxebizitza publikoen sustapenari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak babestutako etxebizitza publikoen sustapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 23an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Babes publikoko etxebizitzaren sustapenari” buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna.

1.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak araubide orokorreko babes publikoko etxebizitzaren helburuak erdiestearren? Eta araubide berezikoak? Eta prezio mugatuko etxebizitza libreetan?

Araubide orokorrean, berezian nahiz prezio mugatuan, jabetzako eta alokairuko etxebizitzaren sustapenaren helburuak lortzeko eginiko jarduketak, oro har, bi multzotan sailka daitezke: arauk ezartzeko jarduketak eta lurzoruaren eskaintza bultzatzen dutenak.

A) Arauk ezartzeko jarduketak:

Arauk ezartzeko jarduketaren helburuak dira finantzaketa hobetzea –hala, baldintza onenak lortu dira korritu-tasetan eta hauen malgutasunean–, onuradunentzako laguntza-sistema hobetzea eta babes jarduketaren berezitasun berriak bultzatzea –gazteen alokairua dugu halako adibiderik esanguratsuenak–.

Esku artean dugun gaiari dagokionez, Etxebizitza Plana indarrean jarri zenetik, arau ezartzeko jarduketarik garrantzitsuenak honako hauek izan dira: abuztuaren 1eko 1209/1997 Foru Dekretua (ekainaren 3ko 234/1996 Foru Dekretuaren aurreko babes ofizialeko etxebizitzaren araubide bereziko espedienteentzat ezarritako dirulaguntzak ziurtatzen dituenak); mailegu-nobazioei buruzko azaroaren 10eko 327/1997 Foru Dekretua; gazteentzako

alokairuei buruzko azaroaren 17ko 338/1997 Foru Dekretua; koalifikaturiko maileguei eta finantziarioari buruzko abenduaren 1eko 355/1997 Foru Dekretua. Bestalde, 1998ko irailerako aurreikusita dago etxebizitzetarako laguntzari buruzko Foru Dekretua onestea, non azaltzen baitira modu bateratuan dirulaguntza-motak eta, etxebizitza arloan, babes jarduketak sustatzeko neurriak.

B) Lurzoruaren eskaintza bultzatzeko jarduketak:

Lurzoruaren eskaintza bultzatzen duten jarduketek eta lurzoru publikoaren esleipen-lehiaketek halako lotura dute elkarren artean. 1997ko uztailaren, Gobernuak lurzoru esleitu zuen babes ofizialeko 841 etxebizitza eraikitzeko; horietatik 729 salerosteko ziren eta 112 alokatzeko. Orain, beste lehiaketa bat prestatzen ari dira. Hori dela eta, lanean dihardute, Mendillorriko laugarren fasean urbanizatu aurreko ekintzak prestatzen zein Berriozar eta Iruña inguruetako beste lurzati batzuk urbanizatzen.

2.- Mota bakoitzeko zenbat jarduketa burutu da, Etxebizitza Plana onetsi zenetik?

1997ko uztailaren 1etik 1998ko abuztuaren 31ra bitartean (galdera denboraldi horri baitagokio), hainbat jarduketa egin dira, eta, guztira 2.891 etxebizitzaren behin-behineko sailkapena ekarri dute; horietatik 1.712 babes ofizialeko etxebizitza araubide orokorrekoak; beste 1.125 babes ofizialeko etxebizitza araubide berezikoak; eta 54, tasa-turiko prezioak.

Datu horiek baieztatzen dute Etxebizitza Planaren helburuak orokorki bete egin direla, eta, gainera, eraikuntza-sektorea mugiarazi dela ere adierazten dute, Etxebizitza Planaren helburua baitzen hori ere, babesturiko jarduketa-kopuruaren gorakada ekartzeko baitzuen berekin (1996ko aurreko denboraldiko datuei eta 1997ko lehen sei hilabete datuei dagokienez).

3.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak zuzeneko sustapenaren bidez, VINSAREN bitartez, toki entitateekin edo bestela?

Etxebizitza Plana indarrean jarri zenetik, Vinsa Nafarroako Gobernuaren kapitala duen enpresak eginiko jarduketek araubide orokorreko, salerosketako eta alokairuko 578 etxebizitzaren gainean izan du eragina Iruñea, Berriozar eta Tudela inguruetan, herritarren artean premia handiena

dutenei zuzenduta, Etxebizitza Planak jasotakoarekin bat eginik. Jarduketa horien helburu nagusia, bestalde, udal interes eta ekimenen arteko koordinazioa da; hori, esaterako, nahiko garbi dago Iruñeko kasuan, non VINSa elkarlanean ari baita Udalarekin ohiko gaiak lantzeko eta, gainera, hirigintzako birkokapenen ondorioz sortutako arazoak konpontzeko, dagokion hitzarmenak holaxe ezarrita du-eta.

Garatu-beharreko jarduketei dagokienez, azpimarratu behar da ezen Nafarroako Gobernuak, VINSaren bitartez, udalekin elkarlanean aritzen jarraitzeko asmoa duela. Lankidetzaren horren adibide bezala, esaterako, Tudelako Udalarekin aurtengo uztailean izenpetutako hitzarmena aipa daiteke. Kasu honetan, Gobernuaren, Udalaren eta VINSaren arteko lankidetzari esker, posible izanen da alde zaharrean oso jarduketa interesgarriak egitea; adibidez, San Frantziskoko komentu zaharrean alokairuko hainbat etxebizitza antolatzeari; "Huerfanicos" delako inguruan alokairuko

etxebizitzak sustatu eta aparkalekuak eta gune libreak sortzea; eta hainbat etxebizitza zaharberritzea alokatzeko.

4.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak azalerako eskubidearen araubidean eraikitzeko?

Oraingoan, azalerako eskubidearen araubidean eraikitzeko jarduketarik ez da garatu, zeren orain arte garatu diren ekimenei begira, pentsatu da hobe dela jarduketak bultzatzea oruberean jabetzaren bitartez edota horiek erakunde publikoen esku edota VINSaren esku utzita.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcino Angulo

## Nafarroan izan den atzerriko inbertsioaren jaitsierari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentario jaunak Nafarroan izan den atzerriko inbertsioaren jaitsierari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailearen 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 23an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikoen Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Luis Gerardo López Eslava jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroan izan den atzerriko inbertsioaren jaitsierari buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna.

Merkataritza Politika eta Kanpoko Inbertsioetarako Zuzendaritza Nagusiak ondutako zuzeneko inbertsioei buruzko Kanpoko transakzioen aldizka-

ria (1997) dugu Departamentu honetan, eta, bertan esaten denez, Andaluzia, Nafarroa eta Euskadin atzerriko inbertsioek izan duten “gorakada nabarmena” eta “interesgarria” da.

Aldizkari horretako V. taulan –atzerriko inbertsioaren bilakaera Espainian eta autonomia erkidegoen arabera banaketa azaltzen baitu– adierazten da, 1997an, urtariletik abendura bitartean, atzerriko inbertsioak Nafarroan 29.248,26 milioi pezetakoak izan zirela (Espainiako kopuru osoaren % 5,04, hain zuzen); eta 1996an, ordea, denboraldi berean eta Nafarroan, 28.764,61 milioi pezetakoak (Espainiako kopuru osoaren % 1,38).

Aldizkari berean, Espainiako inbertsioaren eboluzioa atzerrian eta autonomia erkidegoen arabera banaketa azaltzen dira; bertan adierazten denez, Nafarroak 1997an atzerrian egindako inbertsioek % 196,27 egin zuten gora, aurreko urteko inbertsioekin alderatuta.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

## Foru Komunitateko administrazio publikoek aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak erabiltzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Foru Komunitateko administrazio publikoek aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak erabiltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 30eko 51. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 23an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### Lehendakaritza eta Barne eta Toki Administrazio Kontseilariaren erantzuna

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Administrazio Publikoek aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak erabiltzeari buruz. Hona Toki Administrazio eta Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna.

1.- Nafarroako Komunitateko Administrazio Publikoek jo al dute aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak erabiltzera, jarduera edo kontratazioen bat burutzeko?

Lehendakaritza eta Barne Departamentuan, Toki Administrazio Departamentuan, erakunde autonomoetan eta erakunde hauei atxikitako enpresa publikoetan ez da aldi baterako laneko enpresetara jo aldi baterako lan-kontratudunak hartzeko.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

### **Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren erantzuna**

José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Administrazio Publikoek aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak erabiltzeari buruz. Hona Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren erantzuna.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuak, eta bere menpeko erakunde autonomoek ez dituzte aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak eskatu.

Departamentu honekin lotutako enpresa publikoen artean, "Trabajos Catastrales S.A." enpresak bakarrik eskatu zituen aldi baterako laneko enpresa baten zerbitzuak, 1998ko uztailaren 3, 15, 16 eta 17an banatzaile bat kontratatuz. Kontratutako pertsonak kutxak eta paketeak enpresatik bertatik zenbait erakundetara eramaten eta erakunde haietatik enpresara ekartzen zituen, eguneko lau orduz.

Enpresak kontratazio horrengatik 36.760 pezeta ordaindu zituen. Kontratazioa, lan horretaz arduratzen diren bi langileetako bat gaixo zegoelako eta besteak borondatezko baja eskatu zuelako egin zen.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 10ean

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

### **Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko idazkari teknikoa- ren erantzuna**

Aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak Foru Komunitateko Administrazio Publikoek erabiltzeari buruz, foru parlamentario batek egindako galdera Nafarroako Parlamentuko Mahaiak izapidetzea onartzen zuen 1990eko ekainaren 23an hartutako erabakiarekin loturik ondoko hau esanen dut: Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxe-

zitza Departamentuak ez ditu zerbitzu horiek erabili.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 13an

Idazkari teknikoa: Ignacio Carrillo de Albornoz Alfaro

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria

### **Kultura Kontseilariaren erantzuna**

José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak galdera egin du Administrazio Publikoek aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak erabiltzeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ez ditu aldi baterako laneko enpresak erabili.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 1ean

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### **Osasun Kontseilariaren erantzuna**

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Administrazio Publikoek aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak erabiltzeari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna.

Osasun Departamentuak eta bere erakunde autonomoek ez dituzte, jarduerak edo kontratazioak egiteko, aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak erabili.

Hori guztia jakinarazi dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 11n

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

### **Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren erantzuna**

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak galdera egin du Administrazio Publikoek aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak erabiltzeari buruz. Hona, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren erantzuna.



1997ko apirilaren 15ean "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak egindako galdera berari buruzko erantzuna eman zuen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak.

Data horretatik aurrera Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri

Departamentuak ez du aldi baterako laneko enpresarik erabili.

Hori guztia jakinarazi dizut bidezko ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 18an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

#### **Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna**

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Administrazio Publikoek aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak erabiltzeari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna.

1.- Nafarroako Komunitateko Administrazio Publikoek jo al dute aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak erabiltzera, jarduera edo kontratazioen bat burutzeko?

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ez ditu aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak erabili.

Hori guztia jakinarazi dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 8an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

#### **Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna**

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Administrazio Publikoek aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak erabiltzeari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna.

Antzeko galderari erantzun zitzaion 1997ko maiatzaren 28an; handik aurrera, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak, bere erakunde autonomoek edo Departamentu horri atxikitako elkarte publikoek ez dute aldi baterako laneko enpresen zerbitzurik eskatu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

#### **Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari jaunaren erantzuna**

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Komunitateko Administrazio Publikoek aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak erabiltzeari buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari jaunaren erantzuna.

Aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak erabiltzeari buruz, adierazi nahi dizugu, 1997ko abuztuaren 12ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako erantzunaz geroztik, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak eta bere menpe dauden elkarteek ez dituztela enpresa horien zerbitzuak erabili.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

## Etxebizitza eskuratzeko laguntzen sistemari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak etxebizitza eskuratzeko laguntzen sistemari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 23an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apestegúa

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du etxebizitza eskuratzeko laguntzen sistemaren definizio berriari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna.

1.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, zuzeneko laguntzen sistema, alegia, dirulaguntzak eta maileguen subsidazioak, oro har, berriz definitzeko, lehenengo etxebizitza erosteko erabil daitezten?

Etxebizitza finantzatzeari buruzko abenduaren 21eko 14/1991 Legeak finkatzen dituen dirulaguntzen eskemaren barruan, dirulaguntzen zenbatekoei dagozkien hainbat puntu aldatu dira; batez ere, zaharberitze-lanetan hobetu dira. Maileguez eman-beharreko dirulaguntzari dagokionez, aurreikusita dago 1998ko irailean Nafarroako Gobernuak foru dekretu bat onartzea, interesatuei honako aukera hau ematearren: erosketa egiteko momentuan, maileguaren dirulaguntzaren ordez, dirulaguntza osagarri bat ematea. Dirulaguntza hauek onuradunen ohiko bizileku iraunkorrak izanen dituzte helburu.

2.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, familiaren dirusarreraren bestelako ponderazioa egiteko, etxebizitza eraikitzen den eremu geografikoaren arabera? eta familia-unitatearen kideen kopuru handiagoaren arabera? eta 65 urtetik goitikoendako?

Etxebizitza Plana 1997-2000 egiten ari zenean, eta plan horretako parte hartzaileak ados zedela, ponderaturiko koefizienteen taula osatu zen,

eremu geografikoen arabera zeuden bezalaxe utzita eta famili unitateko kideen kopuruaren arabera hobetuta, estatuko legerian baino eskuzabalkiago. Ezinduei eta 65 urtetik goitikoei dagokionez, esan behar da haiei bide ematen zaiela, zegokiena baino dirulaguntza hobe lor dezaten. Hori guztia apirilaren 14ko 100/1997 Foru Dekretuari gehitu zitzaion.

Ekainaren 15eko 190/1998 Foru Dekretuak askoz erraztasun handiagoak ematen dizkie etxebizitza zaharberitzen duten 65 urtetik goitikoei, baldin eta lanbide arteko gutxieneko soldataren 2,5 baino gutxiagoko dirusarrerara ponderatuak badituzte; esaterako, zaharberritu nahi den etxebizitzak 50 urtetik gora badu, dirulaguntza % 40koa izan daiteke.

3.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak maileguen subsidazioa hobetzeko, halako moldez non mailegua hartzen duen ahalegin handiena egin behar duen urteetan kontzentratuko den?

Mailegu hipotekarioen korritu tasen eboluzio ona dela eta, mailegu koalifikatuen eta horien dirulaguntzen testuingurua aldatu egin da.

Beraz, aurreikusita dago Nafarroako Gobernuak 1998ko irailean foru dekretu bat onartzea, mailegariari honako aukera hau ematearren: dirulaguntza eskubidearen ordez, dirulaguntza osagarria lortzea, etxebizitza erosteko momentuan jasoko lukeena, orduantxe egin behar izanen baitu ahalegin ekonomikorik handiena onuradunak.

4.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, etxebizitzak duen azalera guztia- ren arabera dirulaguntzak emateko erosketan?

Nafarroako Gobernuak, apirilaren 14ko 100/1997 Foru Dekretuaren bidez, dirulaguntza etxebizitzen azalera osora hedatzea erabaki zuen, eta ez soilik lehendabiziko 70 metro koadroetara, ekainaren 3ko 234/1996 Foru Dekretuak –aurreko Gobernuak onetsiak– xedatzen zuenaren arabera. Beraz, Nafarroako Gobernuak aurre hartu dio Etxebizitza Planaren onespenerari, baina beti ere plan hori idazteko prozesuan hainbat hizketakiderekin lortutako adostunaren esparruan jardun du.

5.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, epeak eta amortizazio sistemak

kreditu-sistemaren bilakaerari egokitzeko, hau da, egungo tasei gehitu ahal izateko amortizazio-aldi ezberdineko beste batzuk edo interes aldagarrikoak?

Abenduaren 1eko 355/1997 Foru Dekretuak mailegu koalifikatuetako sistema bat ezarri du, diruz lagunduta ez dagoen korritu tasa urtero aldatzen duena; sistema horrek abantaila handiak ekartzen dizkie bai Foru Komunitateari bai mailegari. Amortizazio-epeak aldatzeari ez zaio beharrezkoa iritzi (15 urte, araubide orokorrean; eta 20 urte, araubide berezian), epeak berez nahiko luzeak baitira.

6.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak babes ofizialeko etxebizitzaren prezioaren hobekuntza ahalbidetzearen?

Babes ofizialeko etxebizitzaren gehienezko salmenta-prezioa Nafarroako Parlamentuak finkatzen du, Aurrekontuei buruzko Foru Legean horien modulua onestean.

Lurzoru publikoa esleitzeko lehiaketetan, araubide bereziko etxebizitzaren eskaintza (% 9 merkeagoak) gehiago baloratu eta puntutatzen da; bes-

talde, hurrengo lurzoru-lehiaketarako, prezioa jaitzeko balorazioa ea hobetu daitekeen aztertuko da.

7.- Etxebizitza Plana onetsi zenetik, zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, dirulaguntza osoa batera ordaintzeko, erosleak gehien behar duenean eskuratu ahal izateko moduan?

Etxebizitza Planari aurrea hartuta, Nafarroako Gobernuak apirilaren 14ko 100/1997 Foru Dekretua onetsi zuenean, beste neurri batzuen artean, arau orokor gisa, honako hau sartu zuen: etxebizitza erosteko momentuan, dirulaguntza osoa batera ematea; lehen, babes ofizialeko etxebizitzaren araubide berezia zela-eta hiru zatitan eman behar baitzen dirulaguntza hori (1997 arte hala gertatzen zen). Gaur egun, araubide bereziko alokairuko etxebizitzaren promotoreei baino ez zaie dirulaguntza bi zatitan ordaintzen.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## **Behar handiena duten jende multzoek etxebizitza eskuratzea errazteko jarduketei buruzko galdera**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak behar handiena duten jende multzoek etxebizitza eskuratzea errazteko jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 23an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguí

### **ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Behar handiena duten jende multzoek etxebizitza esku-

ratzea errazteko jarduketei” buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna.

1.- Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak etxebizitzaren salmenta prezioa eta alokairuen prezioa mugatzeko, etxebizitza horiek gehien behar dituzten taldeen izango direla bermatzearen?

Gizarteratzeko etxebizitza arautzen duen abenduaren 15eko 374/1997 Foru Dekretua onartu du Nafarroako Gobernuak.

Gizarteratze-egitarauetan parte hartzen duten pertsonentzako dirulaguntza-sistema ezarrita dago bertan; aldez aurretik, hitzarmen batzuk egin dira Nafarroako Gobernuaren eta egitarauak kudeatzen dituzten irabazi asmorik gabeko entitateen artean.

Dirulaguntza hauek helburu dituzten pertsonen etxebizitza erabiliak eskura ditzakete metro karra-tu bakoitzeko ondokoa ordainduz: babes ofizialeko etxebizitzetara aplikatzen zaien ponderatu gabeko modulu bat baino bajuagoko prezioa; eta kasuen arabera, etxebizitzak balio duen prezioaren % 15etik % 40ra bitartean jaso dezakete, dirulaguntza gisa. Dagozkion mailegu koalifikatuen dirulaguntza TAE delakoaren % 3ra bitartekoa izan daiteke.

Irabazi asmorik gabeko entitateek etxeak errentan eskaintzen badituzte araubide bereziko etxebizitzentzat ezarritako prezioaren erdian, aurreko paragrafoan aipaturiko etxebizitzetara dagoen prezioaren % 50eko dirulaguntza jaso dezakete aipaturiko entitateek.

babes ofizialeko etxebizitzaren araubide bereziko alokairuei ematen zaizkien dirulaguntza garrantzitsu hauek, kasuen arabera ematen diren % 25, % 50 eta % 75eko dirulaguntzekin batera, oso eraginkorrak direla ikusi da. Izan ere, prezioak mugatu egiten dituzte, eta ondorioz, behar handiena duten jende-multzoek errazagoa daukate etxe horietako bat eskuratu edota alokairuan hartzeko.

Foru Dekretu horren ondorioz, aurten 4 hitzarmen izenpetu dira irabazi asmorik gabeko hainbat entitateekin.

2.- Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak, jendaurreko deialdiaren eta baremoaren bidezko esleipenen gizarte-onura handiagoa eta gardentasuna bermatzeko, eta baita premia larrian diren horiek kasu bakoitzean hautatzeko baldintza egokiak erabiltzeko ere?

1998ko irailean Nafarroako Gobernuak onartzea aurreikusita dagoen Foru Dekretuan eredu lotesle eta aldi berean malgua finkatu nahi da, babes ofizialeko etxebizitzaren araubide bereziko etxebizitzak eta gazte-alokairukoak eskuratu ahal izateko; hori aurrerapausu handia izango da, gizarte-onura handiagoa eta etxebizitza-esleipenen gardentasuna lortzeko bidean.

Gizarteratze-helburuekin eskaintzen diren etxebizitzaren kasuan, irabazi asmorik gabeko entitateak arduratzen dira egitarauak kudeatzeaz, halaxe izenpetuta baitago beraiekin. Beraz, entitate horien bitartez dirulaguntzen onuradunak egoki aukeratzea lortzen da.

3.- Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak erosteko ahalmen txikia duten erabiltzeentzako laguntza publikoak gehitu, errentarietara alokairua ordaintzeko dirulaguntza emendatu eta etxebizitzak zaharberritzeko pizgarriak handitzeko?

Aurreko galderari erantzutean adierazi diren jarduketek galdera honen lehen zatiko edukari ere erantzuten diote.

Bestalde, 1998ko irailean onestekoa den foru dekretuan beste hainbat sistema jasotzen direla esan behar; esaterako, hasierako dirulaguntza handiagotzearen truke, alokairuko etxebizitza publikoak sustatzen dituztenek merkeago eskaini ahal izango dituzte alokairuko etxebizitzak, eta hori, noski, onuragarria izango da errentarientzat.

Etxebizitzak zaharberritzeari dagokionez, aurrekontuari buruzko dirulaguntzaren portzentaia % 0tik (halaxe ezarri baitzuen, izaera orokorraz, aurreko Gobernuak ekainaren 3ko 234/1996 Foru Dekretuan) gaur egungo % 40ra bitarteko igoera ezarri du Gobernuak onartutako ekainaren 15eko 190/1998 Foru Dekretuak, zaharberritzeko lehen-tasunezko barrutietan 50 urtetik gorako zaharberritzeak egitea helburu duenak, ponderaturiko dirusarrera eskasak dituzten 65 urtetik gorako artean; batez ere, alde zaharretako etxebizitzak izan ohi dira, non baliabide ekonomiko urriko pertsonak bizi baitira. Baina ezinduen aldeko ekintzak bultzatzeko ere balio du.

Behar handiena duten jende multzoek etxebizitza eskuratzeko errazteko, ikusten da zeinen aha-legin handia egiten ari den.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an

## **Etxebizitza Planaren lurzoruaren azterketari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Etxebizitza Planaren lurzoruaren azterketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 23an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Etxebizitza Planak aipatzen duen lurzoruaren azterlanari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna.

1.- Zer jarduketa burutu du edo burutzeko asmo du Nafarroako Gobernuak Parlamentu honek urtebete dela onetsi zuen Etxebizitza Planak aurreikusi lurzoruaren azterketa idazteko? Bukatu al du, behin-behingo bada ere, aipatu azterlana? Ondorioetako batzuk edo jarduteko proposamenak ezagutzen al dira?

Aurten, Nafarroako Gobernuak etxebizitzatarako lurzoruaren egungo egoerari buruzko azterketa burutu du Iruñerrian, batez ere inguru horretan jasaten baitira higiezinen sektoreak sortzen dituen gorabeherarik handienak.

Iruña eta Berriozar azterlanetik kanpo utzi dira: Iruña, udal plana lantzen ari direlako; eta Berriozar, eraikitzeke duen gaitasun ia osoa urbanizatzebidean dagoelako.

Herri hauek aztertu dira gehienbat: Antsoain, Aranguren, Barañain, Beriain, Berriobeiti, Burlata,

Zizur Zendea, Egues, Ezkabarte, Galar, Uharte, Noain (Elortzibar), Orkoien, Atarrabia eta Zizur Nagusia.

Aipaturiko azterketak aditzera ematen dituen ondorio nagusiak, hauek dira:

- Sailkaturiko lurzoru publikoaren urritasuna.
- Babes ofizialeko etxebizitzentzako sailkaturiko eta kalifikaturiko lurzoru-urritasuna.
- Udal lurzoru-ondare publikoaren kudeaketa-baliabideak gutxi erabiltzea.

Jarduteko, horra zer proposatzen duen azterlanak:

– Bai haien tipologiarengatik bai garatzeko zorian egoteagatik, jarduketa publikoaren ikus-puntutik interesgarriak izan litezkeen unitateei buruzko azterketa zehatza eta jarraipena egitea.

– Udalei eginiko derrigorrezko eta dohaineko lagapenen ondorioz lortutako lurzoru eta hiri-aprobetxamenduen erabilerari buruzko kontrol eta informazio-baliabideak aztertzea.

– Babes ofizialeko etxebizitzentzako erreserbaren portzentaia areagotzea, halaxe agintzen baitu Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Dekretuak.

2.- Aipatu lurzoru-azterketa bukatu gabe baldin badago: noizko aurreikusi du Nafarroako Gobernuak aipatu azterlana hasi, edo hala bada, bukatzea?

Adierazita dagoenez, aipaturiko azterketa amaituta dago.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo



## **Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak egin dituen iradokizunei buruzko galdera**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak egin dituen iradokizunei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 23an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko Ion Iñaki Erro Armendáriz jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna.

1.- Zenbat iradokizun bidali dizkio Nafarroako Gobernuak Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Departamentuak Ingurugiro Ministerioari aipatu proiektuari buruz? Noiz? Zein da horien edukia?

Ingurugiro Eraginaren Ebaluazioari buruzko Legegintzako Errege Dekretua exekutatzeko, erregelamenduak ezartzen duen aurretiazko kontsulta-prozesuaren barruan, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak bere iritzia eman du zentral termikoa eraikitzeke bi proiektuei buruzko laburpen txostenei buruz. Hidroeléctrica del Cantábrico, SA eta Iberdrola, SA enpresek sustatu dituzte. Igorpen egunak 1998ko ekainaren 25a eta ekainaren 12a izan ziren, hurrenez hurren; biak ere ekainaren 29an izan ziren berriro igorriak.

Hidroeléctrica del Cantábrico, SAK eginiko proiektuari buruzko oharren artean, ingurugiro eraginaren azterlana idaztean kontuan izan beharreko puntu hauek agertzen dira:

- Ura hozteko eta isurketa egiteko hartuneen kokapena.

- Isuriko diren hondakin uren sailkapena (industri urak eta ur beltzak), behar den araztegiaren diseinua eta proposaturiko isurketen ezaugarriak.

- Ibaiko tenperaturak gora egiteak ekar ditzakeen arriskuen ebaluazioa.

- Jardueran, zarata sortzen duten guneen ezaugarriak.

- Etxebizitzak dauden eremuetan zaratak izan duen eraginaren ebaluazioa.

- Errekuntzak eta hozketa-dorreak igorritako lurrinak lainoen eraketan duen eragina.

- Inbertsio termikoez nolako eragina duten poluitzaileak airean sakabanatzean.

- Proposaturiko aire-kalitatearen zaintza-sarea zehatz azaltzea (kokapena, jarri-beharreko aztergailuak...)

- Sarea Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiko kontrol-sarearen barruan sartzeko proposamena.

- Linea elektrikoaren trazaketaren diseinua, Ebro ibaiko gurutzaguneak saihestuz.

- Neurri zuzentzaile eta konpentsatzaileen artean, ibai-ertza leheneratzeko proiektua sartzeari (ubidearen eta zentrala dagoen lekuaren artean).

Iberdrola, SAK sustaturiko zentralak izango duen ingurugiro eraginaren azterlanean, alderdi hauek sartzeari proposatzen da:

- Hustubidearen inguruan hartunea jartzea eta bideragarria den aztertzea, horren ondorioz meandroan izan litezkeen emari-urritasuna saihestearren.

- Ibaitik gorako uretan eraikitako presak zer nolako aldaketak dakartzkion ibaiari baloratzea; orobat, baloratzea hozte-emarirako deribazioa dela-eta ukitutako zatian gerta zitekeena. Ibaiko ekosistemen produktibitatearen eta ibai-ertzetako landarediaren gaineko eraginak zeintzuk diren zehaztea.

- Isuritako hozte-urak eta ibaiko urak non nahasten diren eta noraino hedatzen diren zehaztea. Zer neurri hartu behar diren horien garrantzia txikiagotzeko.

- Isuritako hondakin-uren karakterizazioa (industri urak eta ur beltzak).

- Araztegiaren diseinua eta proposaturiko isurketen ezaugarriak.

- Jarduerak sortuko dituen zaraten karakterizazioa, fokuen arabera.

- Bizitzeko eremuetan zaratak izanen duen eraginaren ebaluazioa. Lehenengo eta behin, ez da onargarriztat hartuko jardueraren inguruan 75 metroko banda jartzea, 5 dB-tik gorako zarata-maila badu.

- Aire-poluitzaileak nola sakabanatzen diren aztertzea.

- Errekuntzaren ondorioz igorritako lurrinak zer eragin izanen duen laino-eraketan.

- Proposaturiko aire-kalitatearen zaintza-sarea zehatz azaltzea (kokalekua, jarribeharreko aztergailuak...).

- Sarea Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiko kontrol-sarearen barruan sartzeko proposamena.

Bi zentral eraikitzeak izan ditzakeen eragin konbinatuak aztertu beharra adierazi da bi kasue-

tan. Orobat, aztertzea da produzituko den energia elektrikoa garraiatzeko zenbat linea elektriko beharko ziren.

2.- Zer txosten tekniko burutu ditu Nafarroako Gobernuak Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Departamentuak gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuari buruz eta zein da aipatu txosten teknikoen edukia?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ez du gaur arte txostenik igorri; izan ere, udalez gaindiko eragina duten proiektu sektorialen tramitazioan sortzen dira txosten horiek, eta bi proiektu hauen tramitazio hori ez da formalki hasi oraindik, zenbat alderdiri buruzko informazioa osatu gabe baitago (besteak beste, ingurugiro eraginaren azterlanetan falta da informazioa).

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## Oftalmologia zerbitzuan ortoptika ariketak eteteari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak Oftalmologia zerbitzuan ortoptika ariketak eteteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 25an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Ospitalean ortoptika ariketak eteteari buruz: noiztik dau den etenda, zergatik, etetea behin betiko al den. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna.

1998ko urtarrilaz geroztik ez dira ortoptika ariketak egiten Nafarroako Ospitalean, ariketa horiek eraginkorrak zirela erakusten zuten frogak zientifikoak oso urriak zirela eta. Erabakia Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzu osoan jarri zen indarrean; izan ere, honelako ariketak Vianako Printzea Kontsulta Zentroan egiten ziren Bideko Ama Birjina Ospitaleko oftalmologia-zerbitzuarentzat eta Nafarroako Ospitaleko Oftalmologia-unitatearentzat.

Oraingoz ez dago horiek berriro ere abian jarzea justifikatzen duten bestelako erreferentzia bibliografikorik eta, horrenbestez, ez dago berauei epe laburrean berriro ere ekiteko asmorik.

Nafarroako Ospitaleari atxikiriko oftalmologo batek gaixo bati ariketa horiek aginduko balizkio, Laguntza Medikoren Zuzendaritzan justifikatu beharko luke hori, zuzendaritza horretatik idatziz jakinarazi zaienari jarraiki.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 21ean

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuak egin dituen iradokizunei buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuak egin dituen iradokizunei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 25an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteñuía

### **ERANTZUNA**

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko Ion Iñaki Erro Armendáriz jaunak galdera egin du, Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuak egin dituen iradokizunei buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna.

Zenbat iradokizun bidali dizkio Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuak Ingurugiro Ministerioari aipatu proiektuari buruz? Noiz? Zein da horien edukia?

Zer txosten tekniko burutu ditu Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuak gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuari buruz eta zein da aipatu txosten teknikoaren edukia?

Ingurugiro eragina ebaluatzea teknika arrunta da industrializaturiko herrietan; halaber, gauza jakina da natur baliabideak babestu eta ingurugiroa zaintzeko tresnarik egokiena dela. Araubide espezifikoak ere badu; esaterako, 85/377/CEE Zuzentaraua.

Ekainaren 28ko 1.302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Ingurugiro Eragina Ebaluatzeari buruzkoa, aipaturiko Europako Batasuneko zuzentarautik abiatzen da. Lehengo administrazio-prozedura osatu eta normalizatzen du, zeren ordura arte hainbat zatitan arauturik baitzegoen maila desberdineko arau sektorialen bidez (Sailkaturiko Jardueren Erregelamendua, airea kutsa dezaketen industrien proiektuetarako Industria-Ministerioaren Agindua, Uren Legea, etab.). Errege dekretuari erantsita, ingurugiro eragina ebaluatzea beharrezkoa duten jarduerak aipatzen dira; horien artean, zentral termikoak eta beste errekontza instalazio batzuk, gutxienez, 300 Mw-ko potentzia termikoa dutenak.

Irailaren 30eko 1.131/98 Errege Dekretuak onartu egiten du 1.302/1986 Errege Dekretua exekutatzeko behar den erregelamendua. 4. artikuluan ingurugiroaren administrazio organoa definitzen du, berari baitagozkio zeregin horiek Administrazio Publikoaren aurrean erabiltzea, beti ere kontuan hartuta proiektuaren burutzapen edo baimena ematea nongo eskumena den.

13. artikuluan dago ezarrita prozedura. Prozedura horren hasteko eta kontsultak egiteko fasearen arabera, ingurugiroaren administrazio organoak kontsultak egin diezazkieke bai pertsoneri bai Erakundeei bai Administrazioei (proiektuaren ekzekuzioaren eragina jasango duten guztiei, alegia), haien iritziz proiektuak izan dezakeen ingurugiro eraginari buruz, ingurugiroa hobeto babestu eta zaintzeko onuragarria izan litekeen edozer adieraz dezaten, eta, ingurugiro eraginaren azterlaneko eduki espezifikoak direla eta, proposamenak egin ditzaten, erantzuteko epea 30 eguneko delarik.

Aurtengo maiatzaren 12an, jardueraren sustaizailerak egin eta Ingurugiroaren Kalitate eta Ebaluaziorako Zuzendari Nagusiak igorritako laburpen txostena heldu zen Osasun Publikoaren Institutura. Ingurugiroaren ikuspuntutik aipaturiko Proiek-

tuaren ezaugarriak esanguratsuenak jasotzeaz gain, kontsultaturiko pertsona, erakunde eta administrazioen zerrenda ere ekartzen zuen (horietako 22, probintzia eta autonomia esparrukoak).

Ingurugiro Eragina Ebaluatzeko laburpen txostena jasotzen duen espediente hau Osasun Publikoaren Institutuko Osasuna Babesteko Atalake aztertu zuen. Eta bukatutakoan, ez zuen ez iradokizunik ez txosten teknikorik igorri.

Hona hemen erabakiaren oinarriak:

1.- Indarrean dagoen ingurugiro araubidea (aire poluzioa –inmisio eta igorpena–, zarata, isurketa likidoak nahiz osasunean eragin dezaketen beste gai batzuk) betetzen dela egiaztatu da.

2.- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua da Nafarroako Foru Komunitatean ingurugiro-eskumena duen administrazio organoa (bai jarduera sailkatuen jardueren alorrean bai ingurugiro eragina ebaluatzeko alorrean); jakina, proiektua jaso zuten erakundeen artean, departamentu hori ere sartuta zegoen.

3.- Proiektuaren berri zehatza jakin eta gero, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren eskariz, Osasun Departamentuak, bere esku dauden eskumenak gogoan harturik, jarduerak osasunari ekartzen ahal dizkion arriskuei buruzko txostena igorri behar du, jarduera sailkatuei buruzko legerian (abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legea eta otsailaren 15eko 32/1990 Foru Dekretua) eta Ingurugiro Eraginari buruzko Ebaluazioan (abenduaren 4ko 580/1995 Foru Dekretua) ezarritakoaren antzera.

4.- Ingurugiro-eskumena duen administrazio organoaren eskariz, Osasun Publikoaren Institutuak behar adina ohar, iradokizun eta txosten tekniko egingo ditu, bai prozeduraren hurrengo faseetan bai Ingurugiro Eraginaren Ebaluazioari zuzen lotuta ez dauden beste prozedura batzuetan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 21ean

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Erriberako urritu fisikoen elkarteak, Amimet-ek, eginiko salaketei buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Antuñano Zárraga Foru Parlamentario jaunak Erriberako urritu fisikoen elkarteak, Amimet-ek, eginiko salaketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 25an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Pedro Antuñano Zárraga jaunak galdera egin du Erriberako minusbaliatu fisikoen elkarteak, AMIMETek, eginiko salaketari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna.

1.- Ba al du Nafarroako Gobernuak AMIMET elkarteak eginiko kexen berri?

Osasun Publikoaren Institutuko Antzemate Goiztiarrerako Atalean, AMIMET Erriberako Minusbaliatu Fisikoen Elkarteko Presidentearen idazkia jaso zen, non salatzen baitzen emakume minusbaliatuen egoera Bularreko Minbiziaren Antzemate Goiztiarrerako Unitate Ibiltarira iristeko, eta arazo hori konpontzeko neurriak har zitezten eskatzen zen.

2.- Zer erantzun eman die elkarte horrek eginiko eskariei Nafarroako Gobernuak?

1998ko uztailaren 3an, erantzuteko idazkia bidali zen, Jose Antonio Gil Rándezzen izenean, Erriberako Minusbaliatu Fisikoen Elkarteko Presidentziara, non azaltzen baitziren Unitate Ibiltariari dagozkion hainbat zirkunstantzia.

3.- Zer neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak minusbaliotasun fisikoak dituztenei sarbidea errazteko bularreko minbiziaren prebentziorako erabiltzen den unitate ibiltarian?

Tuteran eta Lizarran, ospitaleek mamografoa daukatela kontuan harturik, agian posible izanen litzateke (aipaturiko zentroekin aurretik ados jarrita eta AMIMET Elkartearen lankidetzaz) metodorik eraginkorra ezarri eta gaitasunetan murrizketa duten emakumeei hura eskaintzea, Iruñeko Ospitalera edo Eskualdeko Ospitalera joateko aukera izan dezaten.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 21ean

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Radio Riberak irratsaioak emateko erabiltzen duen lokalaren lagapena ez luzatzeari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak Radio Riberak irratsaioak emateko erabiltzen duen lokalaren lagapena ez luzatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 30eko 51. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 25an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak Fontellasko Udalari "Radio Ribera" irratsaioak emateko erabiltzen zuen lokalaren lagapena ez luzatzeko erabakiari buruz. Hona Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren erantzuna.

Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 4ko 880/1993 Foru Aginduaren bidez, Fontellasko Udalari, bertako "Escuela de Captación Agrícola" deitutako eraikinaren 3. oina doan lagatzea onartu zen.

Lagapen horretarako, ondoko baldintzak bete behar zituzten:

Helburua: Udal-emisora ezartzea.

Epea: Lau urte, eta luzatzeko aukera. Epe hau amaitzean udalak eraikina jabetzara itzultzeko hitza eman zuen.

Higiezinaren erabileraren eta kontserbazioaren ondoriozko gastuak: lagapena jasotako udalaren kontura.

Planteatutako guztian, Ondarearen Foru Legeko 26. artikulua lagapen-mota honetarako (Foru Komunitatearen Ondarerako kontraprestaziorik gabe egiten baita) exijitzen dituen baldintzak betetzen ziren; izan ere, onuradunaren erabilera publiko bazegoen eta beste Administrazio Publiko baten alde egiten zen.

Hala ere, jakin zen emisioa ez zela udalarena, baizik eta "Radio Ribera, SL" deitutako enpresa pribatu bat egiten ari zela. Horregatik bazirudien lagapenaren helburua ez zela betetzen.

Udalak, gai honekin loturik, emisora ez zuela zuzenean administratzen onartu zuen, eta era berean azpimarratu zuen merkataritza-elkartea eratzeko asmoa zutela eskatutako zerbitzu publikoaren kudeatzaile zuzen gisa.

Hala ere, lagapen-epea amaitzeko zegoenean, partikular batek salatu egin zuen. Salaketa honek berriz ere argi uzten du emisioa enpresa pribatu batek egiten duela (Radio Ribera, SL) eta era honetara funtzionatzen duela merkatuan, eskaintutako zerbitzuengatik fakturak eginez.

Ondare Zerbitzuak Fontellasko Udalari emisorearen nortasunari buruz galdetu zion. Udalak, alkate udalburuaren bidez, ondoko hau adierazten du: "Radio Ribera Navarra, SL ari da irrati-emanaldiak egiten, eta Udalak ez du enpresa honekin inolako kontratu-loturarik. Hala ere badago Udalbatzaren erabaki bat. Erabaki honen bidez, harreman hori arautzeko legezko formula egokia aztertzea erabaki zuen".



Ondarearen Foru Legeak babesten ez duen egoera arautzeko premiak lagapenaren amaiera justifikatzen du, ondasun publikoa helburu pribatuetarako erabiltzen dela egiaztatu baita. Egoera hau, ezaguna zen arren, Udalak irtenbidea emateko zain geratu zen, bere garaian proposatu bezala. Hala ere, irtenbide hori lagapen-eparearen amaieran (lau urte) oraindik ez zen aurkeztu.

Ekonomiako Zuzendari Nagusiak sinatutako 1998ko maiatzaren 21eko ofizioan, Fontellasko Udalari (hasieran lagapena hari egin zitzaion), hilabeteko epean, lokal hori jabetzaren eskuetan jartzeko eskatu zitzaion, giltzak Ondare Zerbitzuan entregatuz.

Udalak epea luzatzea eskatu zuen, eta ahoz ezezkoa eman arren, praktikan giltzak abuztuaren 5ean entregatu zituen. Hala ere, lokala ez dute behin betiko utzi; izan ere, partikularrek, lokalak okupatuta jarraitzen duela adierazi ondoren, irailaren 8an, Ondasun Zerbitzuko pertsonala eta Foruzaingoko zenbait kide bertara joan ziren adierazpen hauek egiaztatzearren.

Data horretan sinatutako eraikinaren ikuskapen aktak egiaztatzen du une horretan lokalean zenbait pertsona zeudela; hauen artean, Radio Ribera, SL elkarteko arduraduna (Matías Escribano López) eta etxebizitza behin betiko uzteko paketeak egiten ari ziren mudantza-enpresa bateko zenbait langile zeuden.

Epez kanpoko okupazio hau, giltzak entregatu ondoren eta jabetzak ezagutu gabe, jarduera salagarria da, jabetzak salaketarik egin ez duen arren. Etxea behin betiko utzi ondoren, sarrailaldaketa egin zen.

Etxea zertarako erabiliko den behin betiko erabakirik ez egon arren, Fontellasko Udalaren pro-

posamen bat ari da aztertzen. Bertan, etxea kulturekin eta jolasarekin lotutako zerbitzuak eskaintzeko erabiltzea proposatzen da (liburutegia, ludoteka, hirugarren adinekoentzako gizarte-aretoa, "Fontebella" emakume elkarte, antzerki-taldea eta kultur aretoa beste hainbaten artean). Herrian esparru hauekin lotutako jardueren eskaera gero eta handiagoa delako eta horietarako lokal egoiak falta direlako egin da proposamen hau.

Era berean, ikastetxe publiko gisa erabiltzeko proposamena egin zuten; izan ere, oraingoa txikia geratu da azken urte hauetan jaiotzen hazkuntzaren ondorioz.

Lagapen hori erabilerari, jabetzari edo salmentari buruzkoa izan zitekeen; horregatik, etxearen balorazio-txostena egiteko agintzea onartu zen.

Aurrean adierazitakoaren ondorioz, esan daiteke ondasun publiko batetik jarduera pribatua eta irabazizko jarduera egitea eragozteak ez dakarrela galderan aipatutako askatasunak ("enpresa, lan edo adierazpen askatasuna") inola ere urratzea edo enpresaren jarraipenari kalte egitea (beste lokal batean jarraitu baitezake jarduerarekin, egun hala egin dute-eta). Egoera irregular bat amaitzea besterik ez da izan. Egoera hau, gainera, Nafarroako Ondarearen Foru Legean ezarritakoaren aurka doa. Lege honek aukera bakarra eskaintzen du: beste administrazio batzuen eta hauen instituzio-erakundeen edo irabazi asmorik gabeko instituzioen alde ematea jabari publikoko ondasunak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 22an

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

## Bideko Ama Birjina Ospitaleko langileen janzkera aldatu izanari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentario andreak Bideko Ama Birjina Ospitaleko langileen janzkera aldatu izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 28an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikoen Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentario andreak galdera egin du Bideko Ama Birjina Ospitaleko langileen janzkera aldatzeari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna.

1.- Nork eta nola hartu du Bideko Ama Birjina Ospitaleko langileen jantziak aldatzeko erabakia?

Erabakia organu eskudunak hartu du –zuzendari kudeatzaileak, alegia–, Laguntza Ez-sanitarioak Ebaluatu eta Kontrolatzeko Zerbitzuaren proposamenari jarraiki, gaixok kalitate hobea ikus dezaten eta gizabanakoen eskubideak betetzearren. Eskubide horiek Nafarroako Osasunari buruzko 10/1990 Foru Legean agertzen dira, eta lege horrek, besteak beste, ondoko helburu hau ezarri du: osasun zentru batean hartutako gaixok edo bertaratutako senitartekoek uneoro zentru horretako langileak –laguntzakoak izan ala ez–, medikuak edo zerbitzu orokorretan dihardutenak (eta zentrua bera) bereizi ahal ditzatela.

Janzkera berria Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren menpeko zentru guztietan erabiltzen da, eta horri esker goian aipatutako helburu hori bete daiteke.

2.- Nork eta nola aukeratu du jantzien diseinu berria?

Jantzi berriak diseinatzean, hainbat osasun zentruetako erizaintza alorreko, zerbitzu orokorretako eta lantzeria alorreko arduradunek hartu dute parte, eta Laguntza Ez-sanitarioak Ebaluatu eta Kontrolatzeko Zerbitzuak koordinatu ditu lanok.

3.- Noiz deitu zen aipatu jantziak kontratatzeko lehiaketa?

Lehiaketaren deialdia 1997ko azaroaren 19an egin zen, eta lehiaketari buruzko iragarkia 154. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urte horretako abenduaren 24an.

4.- Zer enpresa eta zer proposamen ekonomikorekin aurkeztu zen lehiaketara?

Lehiaketara TWIN, TEXCASESA, SUCONTE-SA, IME eta LAITEX (bi eskaintza) enpresak aurkeztu ziren, eta ondoko proposamen ekonomikoak egin zituzten:

	Twin	Texcasesa	Sucontesa	Ime	Laitex	Laitex
Txabusina zuria	1.658	1.265	1.254	2.114	2.150	2.115
Kasaka koloreduna	1.350	1.025	1.235	1.936	1.864	1.834
Kasaka zuria	1.282	975	1.050	1.744	1.760	1.730
Kasaka zuria kolorezko marraduna	1.320	1.005	1.095	1.537	1.841	1.811
Galtza koloreduna	1.244	945	877	1.275	1.434	1.404
Galtza zuria	1.191	896	795	1.275	1.348	1.318
Jaka koloreduna	1.320	1.015	1.264	1.562	1.780	1.750
Jaka zuria	1.282	975	1.175	1.432	1.648	1.618

5.- Ekonomikoez bestelako zer irizpide erabili zen esleipenerako?

Baldintza Tekniko eta Administratiboen Plegetan esleipena emateko finkatutako irizpideak ondokoak izan ziren:

\* Prezioa: 50 puntu gehienez.

\* Kalitatea: 30 puntu gehienez.

\* Enpresa (banaketarako epeak, banaketarako bitartekoak eta abar): 20 puntu gehienez.

6.- Zer enpresari esleitu zitzaion, zenbatean eta zenbat puntu atera zituen?

Esleipena LAITEX enpresari eman zitzaion, kasaka zuria kolorezko marraduna izan ezik (azken hau IME enpresari esleitu baitzitzaion), eta galtza zuriaren esleipena bien artean banatu zen.

Esleipenaren zenbatekoa zentruen premien arabera da, eta aurtengo urterako 14.961.000 pezeta inguru beharko direla kalkulatu da.

7.- Zer arrazoi dago jantzi berriek ehun-enpresaren erregelamenduzko etiketarik ez eramateko, ezta horrelako produktuek behar dituzten gainerako daturik ere?

Indarreko legeriarekin bat etorritik, 1998ko ekainaren 14a arte ez zen derrigorrezkoa jantzietan eti-

ketak jartzea. Ehunaren osaketa bat dator lehiaketako pleguetan finkatutakoarekin eta enpresa lehiatzaileek aurkeztutako eskaintzarekin.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parla-

mentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 21ean

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## Barañaingo Emakumearentzako Laguntza Unitateari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak Barañaingo Emakumearentzako Laguntza Unitateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 30ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Barañaingo Emakumearentzako Laguntza Unitateari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna.

1.- Barañaingo Emakumearentzako Laguntza Unitatea Barañainen geratuko al da, betiko?

Osasun Departamentuak Barañaingo Unitatea mantendu nahi du, orain arte izan duen funtzionamendua errespetatuz, laguntza-antolaketa kudeatzen duten teknikarien ikuspegiak, kalitate-irizpideak kontuan izanik, zerbitzu guztiak Ermitagaña-Barañaingo Emakumearentzako Laguntza Zentroan biltzea gomendatu arren, 259/97 Foru Dekretuan zehazten denaren arabera.

2.- Zein izango litzateke Barañainen kokatuko litzatekeen Emakumearentzako Laguntza Unitatearen plantilla?

Giza baliabideen eta baliabide teknikoen nolabaiteko bikoiztasuna eta zerbitzuen antolaketan eragozpen ugari ekarriko ditu Barañain gainontzeko emakumearentzako laguntza zentroetatik banantzeak eta unitate gisa mantentzeak.

Barañaingo unitatea funtzionalki mantentzen baldin bada, honako plantilla hau beharko du:

- Ginekologo 1.
- Emagin 1.
- Administrari-laguntzaile 1.
- OLT 1, lanaldi erdiarekin.
- Hezitzaile sanitario 1, lanaldi erdiarekin.

3.- Beharrezko baliabideak jarriko al dira “Gazte Programa” aurrera eraman ahal izateko Barañainen?

Lehen aipatu diren zentroetan burutuko diren jarduketak 259/97 Foru Dekretuan aipatzen direnak dira.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 22an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Estatuko Tributu Agentziak antzemandako zerga-iruzurrari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak Estatuko Tributu Agentziak antzemandako zerga-iruzurrari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 30ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Tributu Agentziak Balio Erantsiaren gaineko Zergan atzeman duen zerga-iruzurrak Nafarroan izan lezakeen eraginari buruz. Hona Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuako Ekonomi eta Ogasun Departamentuak ez du Estatuko Tributu Agentziaren idatzizko jakinarazpen bakar bat ere jaso Balio Erantsiaren gaineko Zergan duela gutxi antzemandako iruzurrari loturik.

Bi zerga-administrazioen artean harreman eta komunikazio ona dagoenez, administrazio zentralak uste izan balu Nafarroako Foru Komunitateari zegokiola ikuskaritza lanak, igorriko zizkigun zegozkigun espedienteak ikuska genitzan, zalan-tzarik gabe.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 24an

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: Jose María Aracama Yoldi

## **Hurrengo menderako tabakorik gabeko gizartearen aldeko manifestuari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak hurrengo menderako tabakorik gabeko gizartearen aldeko manifestuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, hurrengo mendean tabakorik gabeko gizartea izatearren hartuko diren arauen arloko neurri eta heziketa

zein osasun neurri zehatzei buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna.

Tabako kontsumoari aurka egiteko programak gure gizartearen hainbat esparru ditu oinarri: hezikuntza, lantalde profesional bereziki interesgarriak, osasun-zerbitzuak eta herritarrak oro har.

Osasuna zaintzeko neurriei dagokienez, Osasun Publikoaren Institutoak tabako-kontsumoari aurka egiteko programa jarri du abian eta, besteak beste, honako helburu hauek ditu: erretzeak dakarren kalteaz ohartarazi eta horren kontsumoari ez ekiteko neurriak hartzea, erretzaileei menpekotasuna bertan behera uzten lagundu eta osasunerako horrek dakarkien onura ikusaraztea.

Gai horretan adituak diren Europako hainbat erakunde eta azterlan abiapuntutzat harturik ari gara lanean:

- OMEko Europako Bulegoaren helburua 2000. urterako europarron % 80k ez erretzea da.

- OMEko Europarako Eskualde Batzordeak 1987. urteaz geroztik abian jarrita dauzka Tabakoaren aurkako ekintza plana eta Minbiziaren aurkako Europa programa (1985).

- Tabako-politikari buruzko Europako lehen Bilzarra (88) eta tabakoaren aurkako Eskutitza ere euskarritzat ditugu, baita tabakorik gabeko Europaren estrategiak ere.

- Europako Batzordeak bultzatuta, Europako minbiziaren aurkako programak hainbat neurri hartuta dauzka tabakoaren kontsumoa gutxitzeko. Eta hori lortzea Europako Elkartearen lehentasun-tzat jotzen da hemendik 2001. urtera bitartean.

Osasun gairik gehienekin gertatzen den beza-la, tabakoari loturiko arazoak ez dagozkio soil-soilik medikuntzari. Industriak izugarri sustatzen du tabakoaren kontsumoa, ohitura sozial arruntetan oinarriturik baitago.

Horri gehitu behar zaio publizitatearen, marketingaren eta babes-kanpainen bidez egiten den tabakoaren sustapena, zeina nazioz gaindiko instantziek landu dezaketen gaia baita.

Ildo horretatik, Foru Komunitatean neurriak hartzeari begira garatzen ari diren jarduerak era askotarikoak dira:

Eskolan hezkuntza-jarduerak sustatzea. 11 eta 13 urte bitarteko ikasleen artean tabako-kontsumoaren aurkako neurriei buruzko hezkuntza-materiala banatzen da. Kanpaina hau 1990. urteaz geroztik dago abian "Tabakorik gabe hazi" lelopean. Gainera, irakasleei (ILZe) laguntza eskatuz gero, etengabe eskainiko zaie ikastetxe guztiei.

Ikastetxeei laguntzen zaien bitartean, datuak pilatuz doaz, 1998ko Nafarroako Gazteriaren tabako-kontsumoa eta jarrerak zeintzuk diren aztertzeko; labur esanik, badirudi kontsumoak behera egin duela 15etik 19ra bitarteko gazteen artean eta aldeko jarrera erakusten dutela tabakorik gabeko guneak bultzatzeko orduan, bai lantokian bai ikastetxean.

Erretzaileei laguntza eskaintzea, tabako-kontsumoari utz diezaioten. (Oinarrizko Laguntza eta Lan-Osasun Programa). Erabateko hedadura du Komunitate osoan, eta bakarra da Espainia osoan.

- Oinarrizko informazioa lortzeko eskaintza: liburuskak Oinarrizko Laguntza-sare osoan.

- 14 osasun zentrotan (% 24) laguntza trinkoagoa ematen da (banakako kontsulta edo laguntza-taldeak). Gaur egun, zentru zerrenda hori zabal-tze bidean dago.

- Nikotina ordezkatzeko txaplata transdermiko-en programak, 1/3 batean diruz lagunduta; emaitzak benetan onak dira.

- Osasun-profesionalaren jarduera protokoloa (98. urtea). Aholkularitza eta jarraipen etengabea, batez ere Lan-Osasunean (sei enpresa bakoitza bere egitarauarekin, erretzen dutenei laguntzeko).

Eredugarriak diren edota hezkuntzan ari diren erretzaileei laguntza eskaintzea, tabakoa erretze-ari utz diezaioten. Izan ere, sendagileak, erizainak eta irakasleak Osasun eta Hezkuntzaren erreferente sozialak direnez, haien mezuak ezinbestekoak dira tabakismoaren aurkako borrokan. Lantalde horiei zuzenduta, lau programa gauzatu dira. Adierazleen arabera, utzi eta urtebetera hasi ez direnak % 15etik % 62,5era bitartean daude.

Tabakoa kontsumitzeak dakarren arriskua eta erretzeari uzteak dakarren onura herritarrei, oro har, aditzera ematea.

Tabakorik gabeko mundu-egunak oso baliagarriak dira horrelako ekimenak sendotzeko. Hainbat gairi buruzko dibulgazioko materialak prestatzeaz gain, adituak ere etortzen dira, tabakoa kontsumitzeak sortzen dituen arazoei buruzko hitzaldiak ematera. Aipaturiko manifestua izenpetzea estrategia horren barruan sarturik zegoen.

Jarduerak erreklamazio eta demandekin. Edozein pertsona edo erakunderi informazioa ematen zaio, erabil daitezkeen legezko baliabide eta prozedurei buruz.

Alor honetan, kerik gabeko guneak arautzen dituen legedia betetzeko orduan, kontzientzia-maila handiagoa nabaritzen da herritarren aldetik.

Batez ere, osasun eta lan esparruetan bultzatzen dira lan horiek, eta administrazioa ere ari dira arazoaz jabetzen. Udal agintari, garraio publiko eta ikastetxe batzuen kasuan, ordea, jabetze-maila handiagoa bultzatu behar da oraindik.

Epe laburrean ditugun helburuak, hain zuzen, aipaturiko hutsuneak betetzea da, orientazio-zerbitzuak eskainiz eta jabetze-maila txikiagoko arlo horiei buruzko azterketak eginez, jendaurreko tokietan tabakoa kontsumitzea mugatzen duen araudia ezar dadin lehenbailehen Nafarroako gizarteko esparru guztietan.



Hori dela eta, jarduera-protokolo bat antolatuta, zentruak erregulariki ikuskatzeko eta erabiltzaileak –batez ere erreklamazio-orriak erabilita– parte hartzera bultzatzeko.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren lan-kidetza-hitzarmenaren testuinguruan, tabakoa kontsumitzen hastearen aurkako hezkuntza-jarduerak sustatuko dira Haur Hezkuntzako eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zentruetan.

Tabakoari buruzko liburu baten zabalpena laguntza handikoa gertatzen ari da; tabakoak nerabeen artean duen eragina aztertzen da, eta hainbat gomendio eta erabilera praktikoa proposatzen ditu irakasleentzat.

Halaber, pertsona erretzaileei eman beharreko laguntza-jarduerak ere gero eta ugariagoak dira osasun-zerbitzuen aldetik.

Erretzen ez dutenen eskubideak bermatzeko neurriak komunikabideetan, behar den begirunea gordez, zabaltzea da beste ekimen osagarri eta interesgarri bat.

Gainera, osasun, hezkuntza eta kirol-zentroetatik hurbil dauden publizitate-euskarrietatik tabakoaren aldeko iragarkiak kentzea neurri bikaina izan daiteke arazoa konpontzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 28an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## Zakurren borrokak erauzteko hartutako neurriei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak zakurren borrokak erauzteko hartutako neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Animalien Babesari buruzko 7/1994 Foru Legea indarrean sartuz geroztik zakurren borrokak erauzteko burututako jarduketari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna.

Aipatu foru legea indarrean sartu zenetik zer jarduketa burutu dute zakurren borrokak Nafarroatik erauzteko? Kontuan izan bedi aipatu foru lege-

ko 4. artikulua arabera, debeku dela animaliak horrelakoetan erabiltzea, sufrimendua edo tratatu txarra ekar diezaikeelarik.

Apirilaren 29ko 196/1996 Foru Dekretuak maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legea garatu eta zenbat eskumen eman zizkien bai Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari, bai Osasun Departamentuari; eta, dekretu horren arabera, Osasun Departamentuak ez du ikuskizun debekatuen gaineko inolako esku-menik.

Nolanahi ere, partikularrek zenbaitzutan egindako jakinarazpenak direla eta, Osasun Publikoaren Institutuko Elikadura arloko Osasunaren Atal-lak horren berri eman die segurtasun indarrei (Forzaingoko Brigada Berdea eta Guardia Zibila-ren Natura Babesteko Zerbitzua), dagozkion neurriak har ditzaten.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 28an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## Zakurrak identifikatzea dela eta, izapidatutako zehapenei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak zakurrak identifikatzea dela eta, izapidatutako zehapenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeari atxikiriko Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du zakurrak iden-

tifikatzea dela eta, izapidatutako zehapenei buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna.

7/1994 Foru Legea indarrean sartu zenetik, zenbat zehapen izapidatu ditu Nafarroako Gobernuak zakur-jabeen aurka, zakurrak identifikaziorik (txip) gabe edukitzeagatik?

1996 eta 1997 bitartean, 47 zehapen-espediente izapidatu dira, eta, identifikaziorik gabeko edota amorraren aurkako txertorik gabeko zakurren jabeen buruz egindako txostenei dagokienez, 79 egin dira 1996tik gaurdaino.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 28an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## Mikrotxipa irakurtzekoaren gutxi gorabeherako kostuari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak mikrotxipa irakurtzekoaren gutxi gorabeherako kostuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko atxikiriko Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du mikrotxipa irakurtzekoaren gutxi gorabeherako kostuari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna.

1.- Zenbat balio du mikrotxipak irakurtzekoak, gutxi gorabehera?

ISO arauak homologatutako aparailu balioanitzak (frekuentzia anitzeko irakurketa dutenak)

75.000 pezeta inguru balio dute gaur egun, eta frekuentzia bakarrekoak 28.000 pezetatan erosi ziren.

2.- Nafarroako Gobernuak dakienaren arabera, zenbat udaletan dute mikrotxipak irakurtzekoa?

Gaur egun udalek bere kasa erosten dituzte irakurgailuak eta ez dute horren berri ematen. Nolanahi ere, jakin badakigu biztanleria handiko udaletan horrelako aparailuak dauzkatela.

Bestalde, bai Foruzaingoak (Ekologia patruila) bai Guardia Zibilak (Natura Babesteko Zerbitzua) eta Polizia Judizialak honelako aparailuak dituzte, zakurrak jaso eta harrapatzeko zerbitzu batez gain, eta zerbitzu honetan udaletatik datozen eskaerak lehenesten dituzte.

Horrez gainera, 150 albaitari klinikok, beren kasa dihardutenak, mikrotxip irakurgailuak dituzte.

Osasun eskualde oinarritukoetan diharduten Osasun Publikoko albaitari guztiek horrelako irakurgailuak dituzte halaber, eta udaletako osasun zerbitzuen berregituraketaren arabera (Foru Parlamentuaren erabakia, 1981eko azaroaren 16koa, Udaletako Osasun Funtzionarioei buruzko Arau

Erregulatuzaileko 32. artikulua), lehengo udal albaitarien egitekoak osasun publikoko foru zerbitzuek hartu dituzte bere gain, eta, hala, udalek gure albaitariengana jo dezakete mikrotxip irakurgailuak erabiltzeko. Beraz, guztiak dute zerbitzu hau erabiltzeko aukera, eta udal horietako askok erabiltzen dute zerbitzu hori.

3.- 7/1994 Foru Legea indarrean sartu zenetik lau urte bete diren honetan, Nafarroako Gobernuaren ustetan, zer bide hartu behar da egungo nahasmena eta eraginkortasunik eza gainditzeko?

Nafarroan Hidatidosiari Aurre egiteko eta Kontrolatzeko Programaren barruan, gaixotasun hau pertsonen transmititzeko arrisku handia edo erdi-mailakoa duten zakur guztiak zuzeneko tratamendua (banan-banakoa) edo posta-bidezkoa (masi-boa) jaso dute, zakurrak mikrotxipez identifikatuta egoteari esker. Horrek zakur guztien errolda eguneratu eta zehatza osatzea ahalbidetu du, eta, errolda horretan, besteak beste, ondokoak jaso dira: zakurren ezaugarriak, kokapen geografikoa (garrantzi handikoa hidatidosiak eragin handia duen inguruetan bizi diren jakiteko), gaitasuna (garrantzi handikoa gaixotasuna transmititzeko arrisku handia edo erdi-mailakoa duen taldekoak diren jakiteko), arraza (beharrezkoa beren pisua zenbatetsi eta eman beharreko tenizida-dosia kalkulatzeko).

1994an, tratamendu antihelmintikoa zuten 10.980 gutun bidali ziren, 19.326 zakurrentzat; 1995ean, 17.800 gutunez osatutako bi bidalketa egin ziren, 29.035 zakur lau alditan tratatzeko pastillekin; 1996ean zehar, 18.732 gutun bidali zitzaizkien 31.881 zakurri, bizkarroiak bi alditan kentzeko tratamenduarekin; joan den urtean 17.142 gutun bidali ziren lehen bidalketa batean, 34.119 zakurrentzako tratamendu tenizidarekin,

eta beste 18.561 gutun bigarren bidalketa batean, 36.731 zakur tratatzeko.

Honekin guztiarekin geroz eta zakur gehiagori egin zaizkio bizkarroiak kentzeko tratamenduak (1993 arte 100dik behera zakur aztertzen ziren, eta, orduz gero, 600era arte handitu da kopuru hori). Azken lau urteotan ekinokokosia zuten 7 kasu besterik ez dira agertu, guztiak ere kaleko zakurrak, mikrotxiparekin identifikatu gabeak, beraz.

Aurten aztertutako zakurren artean ez da teniarik aurkitu, eta horixe da, hain zuzen ere, biderik onena zakur batek arrisku faktorerik jasan duen eta eman zaion tratamendu tenizida egokia izan den jakiteko. Joan den urte osoan, tenidoen agerrierari dagokionez, kaleko zakurrengan (identifikatu gabeak) jabea zutenenengan (identifikatutakoak gehienak, eta, beraz, osasun-arloak kontrolpean dituenak) halako bi kasu agertu ziren.

Horrenbestez, zakur gehienak kontrolpean daude, eta portzentaje onargarria osatzen dute.

Era berean, jabeen erantzukizunari eta bilketakanpainei esker, Nafarroan apenas ikusten da zakurrik hiriguneetan edota zelai eta errepideetan, bere kasa noraezean, gehientsuek beren jabea izaten baitute ondoan.

Horregatik eta goian azaldutakoarengatik, Osasun Departamentuaren eskumenei dagokionez, ez da inolako nahasmenik ezta eraginkortasunik ezik antzematen.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 28an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## Mikrotxipik ez daramaten zakurren kontrolari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak mikrotxipik ez daramaten zakurren kontrolari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du mikrotxipik ez daramaten zakurren kontrolari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna.

1.- Nola kontrolatzen dira identifikaziorako txipik ez daramaten zakurrak eta nori eskatzen zaio balizko erantzukizuna identifikaziorik, eta beraz, zakurraren arduraduntzat jo daitekeenik ezean?

Beste alde batetik, zakurrak deslai ibiltzea errazten ari da egoera honekin, 2000 inguru izaten omen dira urtero, animaliak babesteko Nafarroako elkarteko datuen arabera.

Foru Komunitatean zakurren identifikazioa arautzen duen azaroaren 9ko 370/1992 Foru Dekretuaren eta, aipatu dekretua garatuz, amorraren aurkako txertoa arautzen duen 1994ko irailaren 19ko Foru Aginduaren arabera, Osasun Publikoaren Institututik identifikatuta dauden zakurren errolda eguneratua igortzen da udal eta kontzeju guztietara sei hilabetero edo eskatzen duten bakoitzean, udalen zeregina baita beren udal mugarteko zakurren populazioa ezagutzea eta egungo egoerarekin bat datorren egiaztatzea, sortzen diren altak eta bajak kontuan izanik.

Gaur egun, Osasun Publikoaren Institutuak zerbitzu bat hitzartuta dauka kalean eta deslai dauden zakurrak harrapatzeko, bai eta jabeei zakurrak hartzeko jabe horiek zakurrak nahi ez dituztenean edo zakurrez arduratu ezin direnean.

Zakurren harrapaketa eta bilketarekin lortu nahi den helburua zoonosiaren hedapena saihestea eta era honetan osasun arriskuak gutxitzea da, eta horretarako bi mailatan jarduten da:

- Kaleko eta/edo zakur basatuak harrapatuz, hauek baitira osasun arriskurik handiena dakartanak.

- Zakurrak utzi nahi dituzten jabeei zakur horiek bilduz, deslai bihur daitezen saihesteko eta, kasurik txarreanean, basati bihur daitezen saihesteko. Kasu honetan, zakurrek mikrotxipa eduki ala ez eduki, zakurra entregatzen diguten pertsona edo jabearen nortasuna ezagutzen dugu.

Koantitatiboki, kaleko zakurrak talderik handiena dira, baina burutu den bilketa eta harrapaketarako estrategiari esker joera hau aldatzen ari da, aurrerago azaltzen diren datuek erakusten duten bezala.

Adierazi den azaroaren 9ko 370/1992 Foru Dekretuak, 5. artikuluan, kaleko zakurtzat hartzen da identifikaziorik ez daukana eta pertsonaren batekin ez doana, eta deslai dagoen zakurtzat, identifikazioa eduki arren pertsonaren batekin ez doana.

Beraz, zure galderan aipatzen dituzun “deslai dauden” 2000 zakurrak Animaliak Babesteko Nafarroako Elkartek eskainitakoak dira; datu horiek zenbait prentsa oharretan agertu dira, eta ez datoz bat deslai dagoen zakurrari buruz lehenago emandako legezko definizioarekin.

Osasun Publikoaren Institutuari buruzko 95, 96 eta 97 urteetako oroit-idazkiak gainbegiratzen badira, ondoren aipatzen diren datuak egiazta daitezke. Hau kontuan izanik, adierazi behar da Osasun Departamentuak zakurrak bildu eta harrapatzeko duen zerbitzuak 1995. urtean deslai zebiltzan 258 zakur harrapatu zituela; 1996. urtean, 306 zakur; eta 1997. urtean, 211, identifikazioa eduki arren, inor gabe joateagatik. Denak identifikatuta daudenez, jabea aurkitzeko beharrezkoak diren datuak eskura daude, eta jabeari zakurra aurkitu dela jakinarazten zaio zakurra berreskura dezan; ordaindu behar dituen tasen berri ere ematen zaio. Oharra jaso ondoren zakurra jasotzera ez bada azaltzen, zakur hori deslai uzteagatik espedienteari hasiera ematen zaio.

Azken hamar hilabeteotan, zakurrak deslai uzteagatik 4 zehapen espediente ireki dira, eta, kasu guztietan, arau-hauste oso larriari dagokion zehapenarekin ebatzi dira (Animalien Babesari buruzko maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legea, 11.3 artikulua).

1995. urtean zehar, guztira 2.042 zakur harrapatu eta/edo jaso ziren (1.057, deslai zeudenak), eta, horietatik, 507 adoptatu egin ziren (% 24,8). 1996. urtean zehar, guztira, 2.374 zakur harrapatu eta/edo jaso ziren (1.170, deslai zeudenak), eta, horietatik, 485 adoptatu egin ziren (% 20,4). 1997. urtean zehar, guztira, 2.265 zakur harrapatu eta/edo jaso ziren (789, deslai zeudenak), eta, horietatik, 623 adoptatu egin ziren (% 27,5).

Zakurrak adopzioan ematen dira legezko epea igaro ondoren, hau da, 8 egun, identifikatuta ez badaude, eta 10 egun identifikatuta badaude (Animalien Babesari buruzko maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legea, 11.2 eta 11.3 artikulua). Jabe berriei eman baino lehen, identifikatu gabe dauden zakurrei mikrotxipa jartzen zaie, eta, edozein kasutan, guztiei amorruren aurkako txertoa jartzen zaie eta bizkarroiak kentzen.

Horrez gain, 1997. urtean zehar, amorruren aurkako txertoa ez zuten eta/edo identifikatu gabe zeuden zakurren jabeek 29 zehapen espediente jarri zitzaizkien; horretarako osasun publikoko albaitariak jasotako aktak, Foruzaingoaren eta Goardia Zibilaren salaketak eta bestelako jarduketak (esate baterako, ofizios Udalen aldetik Udal Ordeantzen arabera, eta abar) hartu ziren abiapuntu.

2.- Nola dago animalien identifikazioa kontrolatzeko datu-biltegia, bai Estatuan, bai Nafarroan?

1993an, Nafarroan zakurrak mikrotxiparekin identifikatzeko derrigorrezkotasuna ezarri zen urtean, 46.247 zakur identifikatu ziren eta amorruren aurkako txertoa jarri zitzaizkien.

1994. urtean, 6.746 zakur berri gehitu ziren.

1995. urtean, alta kopurua (mikrotxiparekin identifikatutako zakurrak) 15.680ra iritsi zen, eta 4.427 baja erregistratu ziren.

1996. urtean, zakurren erroldan alta kopurua 9.139koa izan zen, eta 5.884 baja izan ziren.

1997. urtean 10.026 alta eta 5.157 baja izan ziren.

Gaur egun, mikrotxiparekin identifikatuta eta bizirik dauden zakurrak 68.939 dira, eta zifra hau Europako batezbestekoaren gainera dago: 10 biztanleko zakur bateko batezbestekoa, hain zuzen. Honek adierazten du Nafarroan zakurren erroldaren zatirik handienak amorruren aurkako txertoa jarrita duela eta mikrotxiparekin identifikatuta dagoela.

Estatuan, ez dago errolda ofizialik, autonomia erkidego bakoitzak berea baitauka, eta borondatezkoa baita REIAC delakoaren barruan egotea (Laguntzako Abereak Identifikatzeko Espainiako

Sarea); horren barruan dago Animalia Txikietan Espezializatutako Albaitarien Elkarteak (AVEPA) landutako errolda, non mikrotxiparekin identifikatutako zakurren errolda ez-ofiziala baitago.

Gaur egun REIACen hurrengo erkidegoetako erroldak sartuta daude: Valentzia, Katalunia, Madril, Euskal Herria eta Nafarroa; eta lantze eta integrazio prozesuan daude Kanariak, Balearrak, Kantabria eta Asturias.

AVEPA, bestalde, Laguntzako Animalien Albaitarien Europako Federazioan sartuta dago, eta, horrek, Espainiatik kanpo identifikatutako zakurren jabeak aurkitzea ahalbidetu du.

Internet sarearen bitartez, edozein herritarrek zakur bati eta bere jabeari buruzko informazioa lor dezake, betiere mikrotxiparen hamar digitu identifikatzaileak ezagutzen baditu.

Lehen, Ibertex bidez eskaintzen zen informazio hori.

3.- Zer etorkizun du mikrotxiparen bidezko identifikazioak Nafarroan? Esandakoaz gain, kontuan har bedi gure Komunitatean marka jakineko txip bat besterik ez omen dela aintzatesten, hori besterik ez dela irakurtzen, merkaturan beste batzuk badiren bitartean, bestelako autonomia erkidegoetan eta Europako Batasunean onartuak eta hemen irakurri ezin direnak?

Amorruren aurkako txertoa arautzen duen 1994ko irailaren 19ko Foru Aginduak, 6. artikuluan, zera zehazten du: "Ezaugarri hauek izanen dituen transponder baten bidez eginen da identifikazioa"

1. Programatuta egon beharko du eta ezin izanen da aldatu.

2. Tamainaz ez da 12 milimetro luze eta 2,5 milimetro zabal izatera iritsiko.

3. Pisuz, 80 miligramo baino txikiagoa.

4. Zakurrak jasateko moduko beiran bilduta.

5. Migrazio kontrako sistema eraman beharko dute.

6. Bakoitza ontzi esteril batean etorriko da, mikrotxipa, orratza eta injektorea barrenean dituela.

7. Transponder bakoitzak barra-kodearen hiru etiketa izanen ditu.

8. Laburrenera, 10 zentimetrora irakurtzeko modukoa.

Animalien identifikazioa funtzionarioak ez diren albaitari kliniko eta libreek egiten dute, Nafarroako



Albaitarien Elkargo Ofizialak proposatuta eta Osasun Zuzendari Nagusiak baimenduta (1994ko irailaren 19ko Foru Aginduaren 2. artikulua).

Era berean, aipatu den foru aginduaren 7. artikulua arabera, Nafarroako Albaitarien Elkargo Ofizialaren eta Osasun Departamentuaren artean hitzarmen bat dago, eta bertan amorruren aurka txertoaren eta identifikazioaren prezioak ezarrita daude, eta banaka eta elkarrekin zer prezio duten zehaztuta dago; prezio horiek urtero berrikusten dira. Bere garaian, produktu hau eskaintzen zuten enpresa guztiei eskatu zitzaizkien aurrekontuak, identifikazioaren prezioa Nafarroako Albaitarien Elkargo Ofizialarekin finkatzeko xedez, eta, noski, elkargoak ondorengo hauek aukeratu zituen:

1. Baldintza tekniko guztiak betetzen zitzutenak.
2. Fabrikatzaileek behar bezala bermatzen zitzutenak.
3. Kostu ekonomiko txikiena zutenak.

Nolanahi ere, jakin badakigu bi fabrikazio-enpresen mikrotxipak erabiltzen direla.

Garrantzitsua da zera adieraztea: egikaritza liberaleko albaitariak eskuratzen duten mikrotxipa

beraiek soilik aukeratzen dutela, eta lehendik aipatu diren Foru Aginduaren baldintzak soilik bete behar dituztela.

Gaur egun irakurgailuak balioanitzak dira, eta honek esan nahi du frekuentzia desberdinak irakurtzen dituztela (FDXA + FDXB + HDX sistemak) eta ISO 11.785 arauaren bidez onetsitako ereduak ere badutela (FDXB + HDX + FDXA irakurketa).

Azken urte honetan, Nafarroan jartzen ari diren mikrotxip edo transponderrak ISO arauarekin bat etorri homologatuta daude, eta honek esan nahi du lau urte barru ia zakur guztiak ISO arauarekin bat etorri homologatuta dauden transponderrekin identifikatuta egon direla.

Kasu guztietan, edozein mikrotxip uneoro irakur ahal izan da, eta ez da gertatu mikrotxipik ezin irakur ahal izatea beste motaren batekoa izateagatik.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 28an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## Zangoza, Etxarri-Aranatz eta Elizondo eskualdeetako emakumeen osasun laguntzari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak Zangoza, Etxarri-Aranatz eta Elizondo eskualdeetako emakumeen osasun laguntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko

galdera egin du Zangoza, Etxarri-Aranatz eta Elizondoko eskualdeetako emakumeen osasun laguntzari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna.

1.- Nola antolatzen da hiru eskualde horietako (Zangoza, Etxarri-Aranatz eta Elizondo) emakumeen osasun laguntza udan zehar? Ordezkapenik egiten al da edo langilerik gabe gelditzen ote dira Zangozako kasuan bezala?

Zangoza, Etxarri-Aranatz eta Elizondoko emakumearen laguntzarako zentroak ezarri, iragan maiatzean ezarri ziren, baina azken bi horiek, lehendik, famili orientazio zentro gisa funtzionatzen zuten.

Hasieratik, aldaketa funtzional garrantzitsua gertatu da, zentro bakoitzean lanaldi osorako profesionalak jarri direlako, eta horrek erraztu egin du

zerbitzua jasotzea, baliabideak eskura edukitzea eta jardueraren emaitza onak lortzea

Horren guztiaren ondorioz, oporrak direla-eta medikurik ez dagoenez eta itxaron-zerrendetan arazorik ez dagoenez, ez da bidezkozat jo hutsune horiek betetzea, gehienetan 15 egunetik beherakoak baitira.

Premiarik ezaz gain, esan behar da ez dagoela ordezkapena egin dezakeen ginekologian espezializatutako medikurik langabezian.

Era berean, hutsune horiek ez betetzeak ez du esan nahi edozein premiaren aurrean zerbitzurik eskaintzen ez denik, Etxarri, Zangoza eta Elizondoko azpiunitatekoak diren emakumeak edozein gertakariren aurrean Zabalgunea-Alde Zaharra, Azpilagaña eta Burlatako emakumearen laguntzarako zentroetara joan daitezkeelako, bertakoak baitira gainontzeko emakumeen baldintza berberekin.

2.- Sexu-osasunari eta jaiotzen kontrolari dagokienez, prestaturik al daude azpiunitate

horiek umetoki barneko gailuak dispensatu eta kontrolatzeko, edo Iruñeko beste zentro batzuetara bidaltzen ote dira gaixoak?

Azpiunitate horiek umetoki barneko gailuak dispensatu eta kontrolatzeko prestaturik daude teknikoki eta profesionalki, betiere erizainei lanean dagokien autonomia eta erabakitzeko ahalmena errespetatuta.

Edozein arrazoiengatik azpiunitate horietan zerbitzuren bat bermatzea ezinezkoa denean, sortzen diren eskariak emakumearen laguntzarako zentroetara bideratzen dira, azpiunitate horiek zentro horietakoren batekoak baitira, eta, bertan, azpiunitateetan konpondu ezin diren egoera horien ardura hartu eta konpontzen dira.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 28an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## Burlatako osasun etxea handitzeko proiektuari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak Burlatako osasun etxea handitzeko proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Burlatako osasun etxea handitzeko proiektuari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna.

1.-Azpiegitura eta langile kontuetan, zer aurrekusten du Burlatako osasun etxea handitzeko proiektuak?

Azpiegiturari dagokionez, ondokoak aurreikusi dira:

Adimen-osasuneko zentroa

- . Erizaintza: 1
- . Kontsultak: 4
- . Itxaron-gela: 1
- . Haur-kontsultak: 1
- . Haur-behaketa: 1
- . Erlaxazio-gela: 1

Oinarrizko laguntza: lokal berriak

- . Harrera handitzea
- . Artxiboa handitzea
- . Harrera-ateondoa handitzea
- . Larrialdiak: gela 1
- . Botikina/erauzketak: gela 1
- . Bigarren mailako kirurgia: gela 1
- . Gutxitu fisikoentzako komuna: 1

. Gela balioanitzeko komuna: 1

. Kontsulta balioanitzak: 3

Emakumearen laguntzarako zentroa

. Ginekologia: 2 kontsultategi

. Emagina: kontsultategi 1

. Hezitzailea: kontsultategi 1

Langileei dagokienez, aurten plantilla handitu egin da pediatria erdia eta erizain erdia gehituz.

2.- Zer epe aurreikusi du Osasun Departamentuak proiektua hasi, burutu eta finantzatzeko?

Zentroa handitzeak berekin zekarren zailtasun teknikoa zela eta, handitzearen bideragarritasunari buruzko azterketa bat eskatu zen. Azterketa jaso eta handitze hori bideragarria zela ikusi ondoren, hasiera eman zaio proiektua adjudikatze emateko espedienteari, eta 1998 urte amaierarako bukatua egotea espero da. Horrela bada, lanak 1999 eta 2000 urteetako aurrekontuen kontura burutu eta finantzatzeko dira.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 28an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## Herrilan Kontseilaria buru duen “Batzorde politikoa”ri buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak Herrilan Kontseilaria buru duen “Batzorde politikoa”ri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak, Eusko Alkartasuna alderdikoa, Herrilan Kontseilaria buru duen “batzorde politikoa” bati buruzko galdera egin du, non Nafarroak eta Frantziak ordezkariak baitute. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna.

1. Nafarroak zer ordezkari duen aipatu Batzordean. Izenak eta zeren arabera diren ordezkari.

1998ko otsailaren 3an, Nafarroako Gobernuak eta Pirinio Atlantikoko Departamentuko Kontseilu Nagusiaren artean hitzarmen bat sinatu zen: Nafarroa-Frantzia Pirinioetan Zeharreko Ahalmen Handiko Ardatzari dagozkion Aurretiko Azterlanak egiteko Mugaz Bestaldeko Lankidetzarako Hitzarmena, hain zuzen.

Aldi berean, Lankidetzaren Hitzarmen hori Pabeko Hitzarmenaren ondorioz egin zen –1997ko abuztuaren 28an sinatu zen hitzarmen hori–; aipatu hitzarmenean, espediente honen jarraitzea egiteko talde politikoa bat eratuko zela ezarri zen. Talde politikoa hori mugako bi aldeetako ordezkari politikoei osatuko zuten.

Horren arabera, Nafarroako Gobernuak, 1998ko apirilaren 20an, talde politikoa osatuko zuten partaideak izendatu zituen; partaideak jarraian azaltzen direnak dira:

José Ignacio Palacios Zuasti jauna, Nafarroako Gobernuaren Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria.

Alberto Catalán Higuera jauna, “Unión del Pueblo Navarro” alderdi politikoa ordezkari.

Juan Andrés Platero Alda jauna, PSN-PSOE-ren ordezkari.

Ukitutako toki entitateetako bi ordezkari; honako hauek proposatu zituzten:

Pedro Garrido Belza jauna, Erroibarreko Udaleko alkatea.

Fco. Javier Lorda Garde jauna, Esteribarreko Udaleko alkatea.

2. Nola egin den aipatu pertsonen izendapena eta zer helbururekin.

Izendapena egiteko modua aurreko erantzunean azaltzen da, eta izendapen horren helburua,

Nafarroari dagokionez, batzorde politikoa eratzea da, hartara Nafarroa-Frantzia Pirinioetan Zeharreko Ahalmen Handiko Ardatzari dagokion Aurretiko Azterlanaren jarraipena egiteko.

Batzorde hori osatzeko orduan, gehiengo duten alderdien ordezkari politikoak eta eskualdeko toki entitateetako ordezkariak hartu nahi izan dira, eta hori guztia, batzordean jende gehiegi ez sartzeko baldintza kontuan hartuta. Ekimen honen helburua ez da, ezta gutxiago ere, gainontzeko Parlamentuko Taldeei informazioa edo ordezkariak kentzea; izan ere, Parlamentuko Azpiegitura eta Herrilan Batzordeari espediente honen inguruko urrats edo gertaera orori buruzko informazioa emateko konpromiso hartu da.

3. Batzorde horrek hurrengo urteetan zer "ekintza" burutzeko asmoa duen.

Batzorde politiko hori sortzeko arrazoia goian aipatu duguna denez, batzordearen zereginak Mugaz Bestaldeko Lankidetzarako Hitzarmenak irauten duen bitartean iraunen du, eta berehala egin beharreko ekintzen artean, aurretiko azterlanaren jarraipena eta gainbegiraketa aurkitzen

ditugu, eta horren arabera, jarraian azaltzen diren ekintzak garatu behar dira:

– Aurretiko azterlanaren 1. fasea aztertu eta onetsi, hala badagokio.

– 2. fasearen ondorioak eta proposamenak aztertu eta onetsi, hala badagokio.

4. Aipatu pertsonak orain arte egin dituzten bilerak. Zehatz bitez tokia, egunak eta sortutako gastuak.

Gaur egun arte egin diren bilerak honako hauek dira: Paben, 1998ko apirilaren 21ean, eta, Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean.

Batzorde politiko honetako partaide izateagatik, Nafarroako Gobernuak ez du inolako dietarik, ordainsaririk ezta gastuen ordainik ordaintzen.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 28an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:  
José Ignacio Palacios Zuasti

## Belateko tunelak ezkatatzea eragin duten arrazoiei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak Belateko tunelak ezkatatzea eragin duten arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikaren Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Belateko tunelak ezkatatzea eragin duten arrazoiei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna.

1.- Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren ustetan, zeintzuk izan dira ezkatatzea eragin duten arrazoiak, tunela trafikoari ireki eta zortzi hilabete eskas baino ez direnean igaro?

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren zerbitzu teknikoek, Belateko tuneleko (eta ez Almandozkoa) estaldura partzialki ezkatatzea eragin zuten kausa posibleak in situ aztertu ondoren, ondorioztatu zuten kausa horiek arkaitez-mazizo bat aldamenekoarekiko higitu izana izan zirela, eta fenomeno erabat aurreikusezina zela.

2.- Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak uste al du ezkatatzea gertatu den tokian

tuneleko barrualdea indartu izan balute tunela ixtea ekidin ahal izanen zela?

Ezkatatzea gertatu zeneko tartea indartu egin zen, proiektuan aurreikusita zegoen soluzioaren gainean, hormigoi proiektatuzko eta altzairuzko sare bikoitzeko 15 zentimetroko gainlodierarekin, eta, gainera, teinkatutako buloi altzairuzkoak ipini ziren, bakoitza 14 tonako tentsioarekin. Egitura horrekin, hormigoi proiektatuzko guztizko lodiera 25 zentimetrokoa zen.

Ezkatatzea gertatu eta gero, trafikoaren segurtasun-neurriak lortzearen, gaketik hurbil gertatu zenez, beharrezkotzat jo zen tunela ixtea, konpondu ahal izateko.

Lehenengo galderaren erantzunean adierazi den bezala, tunelaren erorketa partziala eragin zuen arkaitezaren higidura fenomeno mugatua izan zen, txikia eta erabat aurreikusezina.

Edozein planteamendu teknikotan bezalaxe, bereziki geoteknia eta geologiako gaietan, egitura-erresistentziaren edozein gehikuntzak lurraren euspena handiagotzea dakar.

Hala eta guztiz ere, tunelaren estaldurarako hartutako soluzioa egokitzat jo zen tunelaren erakuntzan zehar ezagutzen ziren eta ebaluatu ziren datu geoteknikoen ikuspuntutik.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 30ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti



## Itoizko saihebidetako obrei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak Itoizko saihebidetako obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikaren Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Itoizko saihebidetako obrei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna.

1.- Zer epe ezarri da Itoizko saihebidetako obrak bukatzeko?

Itoizko saihebidetako obrak, kontratazioaren ondorioetarako, bi tartetan zatitu ziren:

NA-172 errepidearen eraikuntza, Agoiztik Auritzera, Agoitz-Nagore-Artzi Tarte, 1. azpitarte: 0+000 kp-tik 6+300 kp-raino.

NA-172 errepidearen eraikuntza, Agoiztik Auritzera, Agoitz-Nagore-Artzi Tarte, 2. azpitarte: 6+300 kp-tik 12+899 kp-raino.

Bi tarte horietan, kontratua bukatzeko eguna 1999ko maiatzaren 13a da.

2.- Obren erritmoaren arabera, enpresek bete al dituzte Herrilan Departamentuak ezarritako epeak?

Enpresa adjudikaziodunen eta lurren azpikontratatistaren artean sortu den arazoa edozein izanik ere, obren erritmoa oso modu txikian ukitu duenez, hauek ezarrita dagoen epean amaitzea aurreikusten da, aurreikuspen hau aldatzen duen ezustekoren bat sortzen ez bada behintzat.

3.- Nafarroako Gobernuak egingen al die aurre birkontraturiko enpresen ordaindugabekoei?

Adjudikaziodunen eta azpikontratatisten arteko erlazioak merkataritza zuzenbidearen eta elkarren arteko kontratuen bitartez arautzen dira, eta kontratu horien baldintzek ez dute kontratu-izaerarik Administrazioarentzat, eta, ondorioz, ez dagokio Administrazioari sor daitezkeen ez-betetzeen erantzukizuna.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

## Nafarroako Gobernuak eta RTVE ente publikoak Nafarroako lurralde-zentroaz izenpetu zuten hitzarmena birnegoziatzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak Nafarroako Gobernuak eta RTVE ente publikoak Nafarroako lurralde-zentroaz izenpetu zuten hitzarmena birnegoziatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parla-

mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak eta RTVE ente publikoak Nafarroako lurralde-zentroaz izenpetu zuten hitzarmena birnegoziatzeari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna.

1.- RTVErekiko Lankidetzaren Hitzarmena birnegoziatzerakoan, aintzat hartuko al da Nafarroako Lurralde Zentroa indartzea, bertako programazioa produzitu dezan?

2.- Birnegoziatuko ote da Nafarroako berezko hizkuntzetan emititzeari buruzko klausula bat sartzea euskara zabaltzeko leku bat egon dadin berezko programazioaren tartean?

3.- Birnegoziatuko ote da bertako emisio-ordu errealean araberako ordainketa modu bat eta ordutegi entzuleei dagokienean lehiakorragoa?

4.- Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileak parte hartuko al du birnegoziaketa horretan?

1, 2, 3 eta 4. galderentzako erantzun bateratua.

Nafarroako Gobernuak eta RTVE Ente Publikoak, Nafarroako TVEren lurralde-programazioa dela-eta formalizatu dituzten lankidetzarako akordio bakarrak hauek dira:

Akordio markoa, 1998. urteko martxoaren 11n izenpetua.

Berariazko akordioa, 1998. urteko uztailaren 1ean izenpetua.

Aipatu diren akordio horien birnegoziaketarik ez da egin, eta ez dago egiteko asmorik.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 30ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:  
José Ignacio Palacios Zuasti

## Nafarroako Gobernua ELA eta LAB sindikatuekin bildu ez izanari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunak Nafarroako Gobernua ELA eta LAB sindikatuekin bildu ez izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Ezker Abertzalea Parlamentuko Taldeko Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du sindikatuek Enplegu Planaren inguruan izandako bilerei

buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari jaunaren erantzuna.

Negoziatzeko eta hitzarmenak adosteko borondatea erakutsi duten eragile sozial eta ekonomikoekin negoziatu du Nafarroako Gobernuak Enplegu Plana.

Enplegu Plana sinatu duten eragile ekonomiko eta sozialek negoziatzeko borondate hori aurretiazko hitzarmenetan erakutsi dute, hala nola, 1993ko inbertsioa eta enplegua sustatzeko hitzarmenean eta 1995eko sektoreen arteko hitzarmenean; bi hitzarmen horiek erabili dira oinarritzat jasotzen zituzten ekimenak aurrera eramateko.

Iruñean, 1998ko irailaren 30ean

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

## 1998an, kalitatea, diseinua eta konpetibitatea hobetzeko dirulaguntzei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak 1998an, kalitatea, diseinua eta konpetibitatea hobetzeko dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 5ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 1998an kalitatea, diseinua eta konpetibitatea hobetzeko dirulaguntza eskaerei buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari jaunaren erantzuna.

1. Kalitatea, diseinua eta konpetibitatea hobetzeko dirulaguntzen deialdiaren I eta II. eranskine-

tan adierazten diren jardueretako bakoitzarentzat onartutako laguntza-eskarien zerrenda doa erantzunarekin batera, eta, zerrenda horretan, ondorengo datu hauek zehaztu dira: laguntza-eskariaren eguna, enpresa edo entitate onuradun eskatzailea eta onuraduna, emakida eguna, laguntzaren zenbatekoa, eta jarduketa horietako bakoitza egiten deneko herria (ikus I. eranskina). Eskaintako informazioan ez da programen izenik jarri, enpresei buruzko informazio konfidentziala adieraz dezaketelako. Informazio hori departamentu honetan kontsultatu ahal izanen da, eta, horretarako, alde zuzenetik eskaria egin beharko da.

2. Aurreko ekitaldietan 1998. urterako hartutako aurrekontu-konpromisoen zerrenda gaineratzen da: espedienteak, zenbatekoak eta urteko konpromisoak (II. eranskina).

3. Laguntza hauek lor ditzaketen jarduketa, proiektu eta azterlanen aldaketek dagokienez, ez da inolako aldaketarik egin.

Iruñean, 1998ko irailaren 30ean

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

## Ekonomia Zuzendari Orokorrak emandako 201/98 Ebazpenak agintzen duen aurrekontu aldaketari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak Ekonomia Zuzendari Orokorrak emandako 201/98 Ebazpenak agintzen duen aurrekontu aldaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 6ko 48. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 7an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Ekonomia Zuzendari Orokorrak emandako 201/98 Ebazpenak agintzen duen aurrekontu aldaketari buruz. Hona Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren erantzuna.

1998ko apirilaren 17an Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari egindako kredituaren gaineratze guztia dagokien kontusailek, 1997an zehar, aurreikusitakoa baino ekonomi gastu txikiagoa izan zuten; gastu txikiago horren

arrazoiak administrazio-izapideen atzerapena, gauzatze arazoak edo eguraldi txarra izan dira.

Beraz, aipatu aurrekontu-aldaketa ez da 1998an gauzatutako lanak aurreikusi baino gehiago izan direlako, baizik eta, ekitaldi honetan, 1997an egin ez zena pilatu delako.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 1ean

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

## Foru Administrazioaren ordenadoretan “2000 ondorioa” saihesteko aurreikusitako jarduketari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Foru Administrazioaren ordenadoretan “2000 ondorioa” saihesteko aurreikusitako jarduketari Foru Parlamentario jaunak Foru Administrazioaren ordenadoretan “2000 ondorioa” saihesteko aurreikusitako jarduketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioaren emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 7an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikaren Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Foru Administrazioaren ordenadoretan “2000 ondorioa” saihesteko aurreikusitako jarduketari buruz. Hona Lehendakariaren eta Barne Kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak jarduketaren bat aurreikusi al du 1999. urtetik 2000.era igarotzearen ondorio datu-suntsitzaileak saihesteko?

Nafarroako Gobernuak duela bi urte hasi zituen zenbait jarduketa, “2000 ondorioa” delakoak akatsik sor ez dezan kalkuluak, konparazioak eta data-antolaketak egiteko informazio-tratamenduetan.

Era berean, mikroprozesadoreak dituzten ordenadore eta dispositibo guztiak inbentariatu eta aztertze plan bat ezarri du, horiek datuen aldaketa dela-eta ukituta geratuz gero, ekintza zuzentzaileak hartu ahal izateko.

### KALTETUTAKO ESPARRUAK

2000. urtearen arazoak hainbat arlo kaltetu ditzake, eta arlo horiek kontuan hartu behar dira, kaltetze-maila zehazteko eta, ondoren, zuzenketak egin ahal izateko. Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusiaren helburua 2000. urtea iristearren eragina mugatzea eta kalteen zuzenketa kudeatzea da; hain zuzen ere, ondorengo esparru hauetan:

- Nafarroako Gobernuaren ordenadore nagusiaren inguruko (host) informazio sistemetan.

- Nafarroako Gobernuaren sare inguruko informazio sistemetan.

- Nafarroako Gobernuaren zerbitzarrietan (sarekoak edo Host) nahiz 4000 lanpostuetan instalatuta dagoen oinarrizko softwarean, 2000. urtearen arazoari eutsi ezin dioten produktuak baitaude.

- Nafarroako Gobernuaren hardware ekipamenduan, beren antzinatean 1999-12-31tik aurrerako datarik ezagutzen ez duten ekipoak baitaude.

- Nafarroako Gobernuaren beste edozein arlotan, osagai elektronikoak dituzten tresna sofistikatuak erabiltzen baitira -hala nola, scanerrak, eta abar-, eta arazoak ezkutuan egon daitezke.

2.- Zenbat diru erabiliko du “2000 ondorioa” saihesteko Foru Administrazioaren ordenadoretan? Zer aurrekontu-kontusaili eraginien dio?

### BEHARREZKO BALIABIDEEN ZENBATESPENA

Kaltetutako esparru bakoitzerako konponbidea egokitze beharrezkoak diren baliabideak adieraziko ditugu ondoren:

*Nafarroako Gobernuaren Informazio Sistemak Host Ingurunean*

CENTRISAK eraldaketa-etaparen plangintza burutu du, eragindako programetatik abiatuz; guztira, 11 hilabeteko lana izan da.

Aurrekontuari dagokionez, 200 lanaldi/pertsona (hamar hilabete) beharrezkoak izango dira eraldaketak eta probak egiteko. Guztizko zenbatekoa, tresnen lizentziak barne, ehun milioi pezetara irits daiteke (BEZ barne). Zenbateko hori, 2000. urtearen arazoa nahiz euroarena konpontzeko kalkulatuta dago. Arazo bakoitzerako lan-banaketaren portzentajea ondorengoa litzateke:

- % 35, 2000. urtearen arazoa konpontzeko.
- % 65, euroaren arazoa konpontzeko.

*Nafarroako Gobernuaren Informazio Sistemak Sare Ingurunean*

Hasiera batean, ingurune horretako aplikazioak 2000. urtearen arazora egokitze eraldaketan Nafarroako Gobernuo langileekin burutzen ari dira. Egokitzen hori 1998. urtean hasi da, eta helburua da 1999. urtearen lehen seihilekoan amaitzea. Hala eta guztiz ere, eraldaketa hori eta euroaren arazoaren konponketa Gobernuo langileekin burutzea ezinezkoa izanen balitz, segurtasun-neurri gisa, 1999. urteko aurrekontuetan 10.000.000 pezetako kontusail bat aurreikusi da lan horiek azpikontratatzeko, lehendik adierazitako datan aplikazio guztiak egokituta egon daitezzen.

*Zerbitzarietan eta lanpostuetan instalatutako oinarrizko softwarea*

Nafarroako Gobernuak gaur egun bere lan-estazioetan instalatuta daukan oinarrizko software guztia 2000. urterako prestatuta dago.

Erabiltzaileek erabiltzen dituzten tresnak (testu-prozesadoreak, kalkulu-orriak, datu-baseak, grafiko-programak eta abar), hala DOSen erabiltzen ziren bertsioetan nola Windowsen, 2000. urtearen arazoa konponduta dute.

Ordenadore nagusiko softwarearen aldaketak ez dakar kostu gehigarririk 2000 ondorioaren proiektuan, goragoko bertsioetara igarotzea Nafarroako

Gobernuak hornitzaileekin izenpetuta duen mantenimendu-kontratuan sartuta dagoelako.

Sistema Eragile baten bertsioa aldatzeak gutxi gorabehera 6 hilabeteko lana dakar, berria erabat instalatu eta produkzio-probak egin arte.

*Nafarroako Gobernuaren hardware ekipamendua*

Makinen % 10 horren ordezkatzera 1998. urtearen amaieratik hasi eta 1999. urtearen 2 hilabeteen barruan burutzea aurreikusita dago; hardware berriaren erosketak eta aplikazio berrien instalazioa koordinatuta egiten da. (Zerbitzarien % 10 hori osasun etxeetan kokatuta dago, batez ere).

Fitxategi eta aplikazioetarako zerbitzarien % 90ek hardware egokia dute eta gainontzeko %10 hori 1998. urtearen amaieraren eta 1999. urtearen hasieraren artean ordezkatzera planifikatuta dago.

Ordenadore nagusiaren hardwarea aldatzearen kostua ondorengoa da:

3745eko kontrol-unitateak:	25.000.000
Monitore eta ordenadore pertsonalak:	3.000.000
Diskoak:	39.000.000

*Nafarroako Gobernuaren aparatuen ezkutuko eragin azterketa*

Nafarroako Gobernuo aparatuen eta sistema kritikoaren ezkutuko eraginak inbentariatu eta aztertzeko departamentuarterko batzorde bat eratuko da, Osasun, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan, eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuetako ordezkariekin, Lehendakaritza eta Barne Departamentuaren koordinaziopean.

1999. urterako aurrekontu proiektuan 200.000.000 pezeta kontsignatu dira 2000. urtearen balizko eraginak zuzentzeko.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 1ean

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

## 1997an, isurkinen kalitatea hobetzeko neurriak hartzeko dirulaguntzei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak 1997an, isurkinen kalitatea hobetzeko neurriak hartzeko dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 7an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 1997an isurkinen kalitatea hobetzeko neurriak hartzeko dirulaguntzei buruz. Hona Toki Administrazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- Handitu al zen, foru agindu edo ebazpenen bidez, aurreko galderan aipatutako aurrekontu-kontsignazioa 1997ko ekitaldian erabili den diru kopururaino? Baiezkoan, zein izan dira hasieran aurrekontuan agertzen zen kopurua eta azkenik erabili dena?

NILSaren Administrazio Kontseiluak, 1996ko abenduaren 17an eginiko bilkuran, erakunde pribatuen inbertsioarako dirulaguntzen programa onetsi zuen. Kontsignazioa ez da handitu, eta Sozietate Publikoaren Administrazio Kontseiluak onetsi zuena da: 125 milioi pezeta.

2.- Zeintzuk izan dira 1. artikuluko 2. puntuan agertzen diren hiru motatako bakoitzerako dirulaguntza eskaerak? Zera nahi da: dirulaguntza eskatu zen eguna, hori eskatu zuen enpresa edo erakunde onuradunaren izena, jarduketaren laburpena, Ingurugiro Zerbitzuak txosten loteslea egin zuen eguna, dirulaguntza eman zen eguna, dirulaguntzaren zenbatekoa, eta jarduketa bakoitza egin den herriaren izena.

Dirulaguntzen zerrenda, dokumentu honetan eranskin gisa gaineratzen dena da.

3.- 1. artikuluko 6. puntuan ezarritakoari jarraituz, igorri al du Nafarroako Gobernuaren Ingurugiro Zerbitzuak txostenik dirulaguntzak jaso zituzten onuradun bakoitzari buruz? Baiezkoan, zenbat txostenek eragin dute proposatutako

proiektua aldatzea edo emaniko dirulaguntza baliogabetzea? Zehaztu espediente eta eginiko aldaketak.

Nafarroako Gobernuaren Ingurugiro Zerbitzuak txostenak eman ditu aurkeztutako proiektuei buruz.

Ondorengo espediente hauetan eskatu da proposatutako proiektua aldatzea edo dokumentazioa zabaltzea:

Enpresa	Azterlana	Dirulaguntza
M.B. Pamplona, SA	Ur-araztegiaren instalazioa	766.250
Ziraba SA	Hondakin-uren trataleku industrialia	12.164.075
Vinícola Navarra SA	Isurkinen zama gutxitzeko inbertsio-proiektua	5.008.208

Aurkeztutako ondorengo proiektuei ez zaie dirulaguntzarik eman:

Enpresa	Azterlana	Dirulaguntza
Iberfruta SA	Hondakin-uren araztegia	16.092.089
Hormigones Ebro SA	Agregakinen garbiketarik eratorzen diren uren tratamendua	3.000.000
I. Grasas Marín Navarra, SL	Sailkatutako jardueraren zabalkuntza	6.809.687
Alimentos Congelados SA	Isurketa-ura ureztaketarako errekupeperatzeko proiektua	2.425.500
SCL Riberál de Navarra	Maria bainuko ontziak atrukagailudun autokablearekin ordezkatzeta	5.847.500

4.- 1997ko ekitaldian, hartu al da aurrekontu konpromisorik hurrengo urteetarako? Baiezkoan, zera nahi da: espedienteak, zenbatekoak eta urte bakoitzerako konpromisioa.

Ez da hartu aurrekontu konpromisorik hurrengo urteetarako.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluko eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 1ean

Toki Administrazio Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

(Oharra: Aipatu eranskina Foru Parlamentarioen esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).



## 1998an, isurkinen kalitatea hobetzeko neurriak hartzeko dirulaguntzei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak 1998an, isurkinen kalitatea hobetzeko neurriak hartzeko dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 7an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 1998an isurkinen kalitatea hobetzeko neurriak hartzeko dirulaguntzei buruz. Hona Toki Administrazio Kontseilariaren erantzuna.

1.- Zeintzuk izan dira 1. artikuluko 2. puntuan agertzen diren hiru motatako bakoitzerako dirulaguntza eskaerak? Zera nahi da: dirulaguntza eskatu zen eguna, hori eskatu zuen enpresa edo erakunde onuradunaren izena, jarduketaren laburpena, dirulaguntza eman zen eguna, dirulaguntza-

ren zenbatekoa, eta jarduketa bakoitza egiten den herriaren izena.

NILSaren Administrazio Kontseiluak, 1997ko abenduaren 9an eginiko bilkuran, erakunde pribatuen inbertsioetarako dirulaguntzen programa onetsi zuen. Aurkeztu ziren eskaeren zerrenda, dokumentu honetan eranskin gisa gaineratzen dena da.

2.- 1998ko aurrekontu ekitaldirako, gehitu al da aurreko urteetan hartutako aurrekontu konpromisorik? Baiezkoan, zera nahi da: espedienteak, zenbatekoak eta urte bakoitzerako konpromisoa.

Ez da aurreko urteetako aurrekontu konpromisorik gaineratu, eta Administrazio Kontseiluak onetsi zuen 125 milioi pezetako kontsignazioa dago.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 1ean

Toki Administrazio Kontseilaria: Rafael Gurra Induráin

(Oharra: Aipatu eranskina Foru Parlamentarioen esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

## Zoliako hiri bioklimatikoan energia berriztagarriak erabiltzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak Zoliako hiri bioklimatikoan energia berriztagarriak erabiltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 7an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Nueva Izquierdako Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Zolinako hiri bioklimatikoan energia berriztagarriak erabiltzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna.

1. Urbanizazioan gasolindegia jartzeko ideia Gobernuak egin dituen gomendioetatik atera den.

Urbanizazioan gasolindegia jartzeko ideia ez da Gobernuarena izan. Ideia hau I.C.T.-C.A.D.I.A.ko langileena izan da, espazio horretan jar daitezkeen instalazio bat bezala, egindako bideragarritasun-azterlanean inolako eraginik izan gabe.

2. Non geratu den konpentsazio bidezko energi askitasunari buruzko hasierako planteamendua (energi ekoizkortasun handiko aldiek energia

saretik hartu beharreko beste batzuk berdindu behar zituzten), izan ere, orain badirudi azterlanak behar den energia guztiaren % 62,65 baino ez duela jarri, askitasunaz ari denean.

Adierazi dugun portzentajeak (% 62,65) energia berriztagarriak erabiliz lortzen den gutxieneko kantitatea adierazten du, bideragarritasun ekonomikoari buruzko azterlanean bermatzen dena. Kantitate horrek energia berriztagarriak (energia eolikoa eta eguzki-energia)erabiliz lortutako gutxieneko energia kantitatea adierazten du, eta horrek, esparru honetan esku-hartze berezia adierazten digu eta garatu nahi den jarduera justifikatzen du.

Proiektua berriro ere definituko da, eta orduan portzentaje hori zehaztasunez finkatu ahal izanen da; izan ere, % 62,65 kantitatea, aurreko paragrafoan adierazi dugun bezala, gutxieneko muga da, azterlana egin zen unean bideragarritzat jo zena. Aipatu fasean portzentaje hori areagotu dezaketen aldaera berriak zehaztuko dira, hala nola, energia fotovoltaikoari duela gutxi eman zaizkion laguntzak edo exekuzio proiektua definitu bitartean izan daitezkeen laguntzak.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 1ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## Naturaren interpretazio zentroyen ezartze eta garatze mailari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Naturaren interpretazio zentroyen ezartze eta garatze mailari buruz egin-dako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 7an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du naturaren interpretazio zentroyen ezartze eta garatze mailari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna.

1.- Zenbat naturaren interpretazio zentro ezartzea aurreikusi du Nafarroako Gobernuak gure komunitatean? Parke naturalen bat izatea edo izanen dela aurreikustea funtsezkoa al da horietako zentro bat proposatu eta horren kokalekua erabakitzeko?

3.- Zein da, gaur egun, zentro hauen ezartze eta garatze-maila? Noiz abiarazi ziren orain daudenak, eta aurreikusi al da egin diren berriak abiaraztea? Zer denbora programazio dituzte aurreikusitako jarduketak guztiek?

6.- Zeintzuk dira zentro horien kokalekuak ezartzeko irizpideak? Kontsultarik egin al zaie aurreikusita dauden zentroak izanen dituzten toki entitateei? Erantzuna baiezkkoa bada, zein entitatei eta zein zentrotarako?

7.- Oraindik ezartzeko dauden naturaren interpretazio zentroyei dagokionean, hona hemen galderak: Erabakita al daude horien kokalekuak? Zeintzuk dira erabaki hori hartzeko irizpideak? Toki entitateek eskaintzen al dute lekuri horiek ezartzeko? Onetsi al da, formalki, eskaintzea horietakoren bat? Zein izan dira eskaintza horiek baztertzeko arrazoiak?

Naturaren interpretazio zentroyen ezartze eta garatze mailari dagokionez (kontzeptu honetan “Hegaztien behatokiak” deiturikoak sartzen dira),

adierazi beharra dago gaur egun gure komunitatean daudenak ondorengo hauek direla:

“Bertizko Jaurerriko” Parke Naturaleko Naturaren interpretazio zentroa (1993-06-23an inauguratua); Otsagabiako Naturaren interpretazio zentroa (1995-08-09an inauguratua); Erronkariko Naturaren interpretazio zentroa (1995-05-11n inauguratua); Vianako Las Cañas urtegiko Hegaztien behatokia (1995ean inauguratua), eta Pitillaseko La Lagunako hegaztien behatokia (1998-01-23an inauguratua).

Bestalde, Irunberriko Arroileko Naturaren interpretazio zentroa eraikuntza prozesuan dago, eta 1999ko apirilean amaitzea aurreikusita dago.

Era berean, Urbasa eta Bardeetako zentroyen eraikuntza aurreikusita dago, baina ez dago obrak hasteko egunik finkatuta.

Etorkizuneko bi zentro hauei dagokienez, beren behin betiko kokalekua ez dago oraindik erabakita. Bi ekipamendu berri hauen obrak datoren 1999ko ekitaldi ekonomikoan zehar hastea aurreikusita dago.

Bere sorkuntza eta/edo kokalekurako jarraitu diren irizpideei dagokienez, adierazi beharra dago ekipamendu horien sorkuntza erabaki eta beren behin betiko kokalekua finkatzeko nagusitu den irizpidea, orain arte, beren inguruan parke natural edo bestelako naturgune babesturen bat egotea izan dela.

Kasu guztietan, ukitutako toki entitateei zein parkeetako patronatuei kontsulta eginen zaie ekipamendu horien kokalekua ezartzeko, eta lankidetzan arituko gara, alderdi guztiak pozik gera daitezen, horien eraikuntza, abiarazte eta ondorengo kudeaketari dagokienez.

2.- Ba al da horrelako zentroentzat funtzionamendu programaren diseinurik? Erantzuna baiezkkoa bada, zeintzuk dira horren oinarriko ezaugarriak?

1998. urtera arte eraikitako naturaren interpretazio zentroyen funtzionamendu programa, bisitarietzako eta bertako biztanleentzako informazio eta interpretazio zerbitzua eskaintzean zetzan, batez ere espezie eta espazioen kontserbazioan oinarrituta. Aurten hasita, naturaren interpretazio zentroak kontserbazioari laguntzeko azpiegiturak izan daitezen lortu nahi da, bai eta ezarrita dau-

den zonen tokiko garapenerako tresna ere izan daitezzen. Era berean, naturaren interpretazio zentroek eta zenbait kasutan horien eraikinetan kokatuta dauden turismo bulegoek gaur egun eskaintzen dituzten zerbitzuen kudeaketa osoan eta koordinazioan aurrera egitea lortu nahi da.

Zentro horien funtzio berriak ondorengo hauek izanen dira:

- Zonako eta komunitateko turismo eta ingurugiroari buruzko informazioa.

- Ingurugiroari buruzko interpretazio eta hezkuntza: zentroetara egiten diren bisitak hartzeaz gain, beste zenbait kanpo-jarduera antolatu nahi dira, heziketa, aisialdi eta abarri buruzkoak, bertako biztanleei eta bisitariei zuzenduta.

- Kokatuta dauden zonaren turismo, kultura eta ingurugiroari loturiko alderdiei buruzko dokumentazio eta dibulgazio zentroa.

- Kokatuta dauden lurraldeko naturgune babestuen kudeaketari eta erabilera publikoari laguntzea.

- Zonaren garapen eutsigarriaren aldeko tokiko ekimenei laguntzea: ingurugiro boluntarioritza, elkartegintza eta gizartearen parte-hartzea.

- Ekoturismoaren sektorean lan egiten duten enpresa-ekimenei laguntzea.

- Interes orokorreko beste zenbait zerbitzuri arreta eskaintzea: kanpalekuen gestioa, landetxei buruzko informazioa, turismo eta ingurugirorako interesa duten bestelako gertaerak antolatzea.

4.- Zein izan da, orain arte, zentro horiek ezartzearen kostua? Kostu horren zer zati ordaintzen da Nafarroako Aurrekontu Orokorrekin eta Europako Batasuneko finantziarioarekin? Aurreikusita dagoena ezartzeko zer aurrekontu aurreikusi da? Zer zati dagokio Administrazio bakoitzari?

5.- Zer funtzionamendu kostu aurreikusi da zentro horietako bakoitzarentzat? Nola aurreikusi da kostu horiei aurre egitea?

#### Bertz

1.- Exekuzioaren aurrekontua

1.1.- Obra zibila: 23.700.000 pezeta.

1.2.- Ekipamendua: 94.200.000 pezeta.

Guztira: 117.900.000 pezeta. Nafarroako Gobernuak % 50 finantzatzeko du eta Europako Batasunak beste % 50.

2.- Urteko gastua

2.1.- Parkearen erabilera publikoaren gestioa, lorategiaren mantenimendua eta abar: 30.599.856 pezeta. (2.000.000 pezeta. NIZeko ekipoen mantenimendurako).

2.2.- Argia: 1.984.250 pezeta.

2.3.- Berokuntza: 598.340 pezeta.

2.3.- Eraikinaren mantenimendua: 585.642 pezeta.

Guztira: 33.768.088 pezeta. Gastu hauek Nafarroako Gobernuaren urteko aurrekontuen kargura finantzatzeko dira.

3.- 1997ko dirusarrerak: 8.780.200 pezeta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasunekoak diren naturaren interpretazio zentroetara sartzeko erregimena ezartzen duen ekainaren 30eko 177/97 Foru Dekretuaren arabera kobratu diren sarrera-txarteletan dagozkienak.

#### Otsagabia

1.- Exekuzioaren aurrekontua

1.1.- Obra zibila: 81.682.860 pezeta.

1.2.- Ekipamendua: 64.415.096 pezeta.

Guztira: 146.097.956 pezeta. Nafarroako Gobernuak % 50 finantzatzeko du eta Europako Batasunak beste % 50.

2.- Urteko gastua

2.1.- Gestioa: 10.973.913 pezeta (hauetatik, 1.000.000 pezeta NIZeko ekipoen mantenimenduari dagozkio).

2.2.- Argia: 465.375 pezeta.

2.3.- Berokuntza: 463.867 pezeta.

2.3.- Eraikinaren mantenimendua: 264.215 pezeta.

2.4.- Telefonoa: 145.720 pezeta.

Guztira: 12.313.090 pezeta. Gastu hauek Nafarroako Gobernuaren urteko aurrekontuen kargura finantzatzeko dira.

3.- 1997ko dirusarrerak: 850.000 pezeta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasunekoak diren naturaren interpretazio zentroetara sartzeko erregimena ezartzen duen ekainaren 30eko 177/97 Foru Dekretuaren arabera kobratu diren sarrera-txarteletan dagozkienak.

#### Erronkari

1.- Exekuzioaren aurrekontua

1.1.- Obra zibila: 72.394.704 pezeta.

1.2.- Ekipamendua: 73.972.857 pezeta.

Guztira: 146.367.561 pezeta. Nafarroako Gobernuak % 50 finantzatzen du eta Europako Batasunak beste % 50.

## 2.- Urteko gastua

2.1.- Gestioa: 11.238.128 pezeta (hauetatik, 1.000.000 pezeta NIZeko ekipoen mantenimenduari dagozkio).

2.2.- Argia: 265.600 pezeta.

2.3.- Berokuntza: 430.720 pezeta.

2.3.- Eraikinaren mantenimendua: 136.200 pezeta.

2.4.- Telefonoa: 125.000 pezeta.

Guztira: 12.195.648 pezeta. Gastu hauek Nafarroako Gobernuaren urteko aurrekontuen kargura finantzatzen dira.

3.- 1997ko dirusarrerak: 750.000 pezeta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasunekoak diren naturaren interpretazio zentrotara sartzeko erregimena ezartzen duen ekainaren 30eko 177/97 Foru Dekretuaren arabera kobratu diren sarrera-txartelei dagozkienak.

Las Cañas urtegiko hegaztien behatokia

### 1.- Exekuzioaren aurrekontua

1.1.- Obra zibila: 72.394.704 pezeta.

1.2.- Ekipamendua: 73.972.857 pezeta.

Guztira: 146.367.561 pezeta. Nafarroako Gobernuak % 50 finantzatzen du eta Europako Batasunak beste % 50.

### 2.- Urteko gastua

2.1.- Gestioa: 4.159.000 pezeta. (hauetatik, 3.599.000 pezeta langileen gastuei dagozkie, eta 560.000 mantenimenduari).

Gastu hauek Nafarroako Gobernuaren urteko aurrekontuen kargura finantzatzen dira.

Pitillaseko La Lagunako hegaztien behatokia

### 1.- Exekuzioaren aurrekontua

1.1.- Obra zibila: 27.000.000 pezeta.

1.2.- Ekipamendua: 3.800.000 pezeta.

Guztira: 30.800.000 pezeta. Nafarroako Gobernuak % 50 finantzatzen du eta Europako Batasunak beste % 50.

### 2.- Urteko gastua

2.1.- Gestioa: 3.266.100 pezeta (hauetatik, 2.990.100 pezeta langileen gastuei dagozkie, eta 276.000 mantenimenduari).

Gastu hauek Nafarroako Gobernuaren urteko aurrekontuen kargura finantzatzen dira.

Irunberri

### 1.- Exekuzioaren aurrekontua

1.1.- Obra zibila: 62.159.426 pezeta.

1.2.- Ekipamendua: 25.000.000 pezeta.

Guztira: 87.159.426 pezeta. Nafarroako Gobernuak % 50 finantzatzen du eta Europako Batasunak beste % 50.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 1ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## Abuztuan Imarkoainen izandako uholdeengatik kaltetuek eskatutako kalteordainei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak Abuztuan Imarkoainen izandako uholdeengatik kaltetuek eskatutako kalteordainei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 7an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz, galdera egin du uholdeengatik kaltetutako enprekientzako buruzko irtenbideei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna.

1.- Nafarroako Gobernuak zer aurreikusi du uholdeek kaltetutako enprekientzako konponetzeko?

Nafarroako Gobernuaren ustez, 1997ko abuztuan Imarkoainen izandako uholdeek ez dute inolako zerikusirik Garraioaren Hiriko obrekin. Hona hemen horren arrazoiak:

a) 1997ko abuztuan Garraioaren Hiriko obrak (1. fasea) indusketa fasean zeuden. Horrenbestez, ordura arte ez zen egin artoaren isurketa-koefizientean aldaketarik eragin zezakeen jarduketarik. Hori zolaketa egiten denean gertatuko da.

b) Uholdeak Imarkoainen bat egiten duten bi erretanetan izandako gainezkatzeen ondorioz gertatu ziren. Horietako batek ez du inolako zerikusirik Garraioaren Hiriarekin eta hala ere berdindin gainezkatu zen.

c) Imarkoainen izan ziren uholdeak bat etorri ziren ondoren aipatuko ditudan herrietan hilabete berean izan ziren uholdeekin, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan dugun dokumentazioan eta egun horietako prentsako berrietan egiazta daitezkeen.

– Andosilla, San Adrian, Caparroso, Pitillas, Muetz, Barasoain, Mutiloabeiti, Gongora, Lodosa, Orotz-Betelu, Puiu, Mendigorria, Ezkirotz, Garinoain, Larraga, Aberin, Añorbe, Zirauki, Lerin, Mañeru, Mendigorria, Morentin, Oteitza, Gares, Tiebas-Arrizabalaga eta Villatuerta.

Uholde horien guztien kausak hilabete horretan zehar izandako eurite handiak eta batez besteko isurketak baino txikiagoak izan zituzten aurreko zortzi urteetan sortu zen landaredi handia dela-eta ubide naturalak ez zaintzea eta ez garbitzea izan ziren.

Hori kontuan izanik eta etorkizunean antzeko kalteak ekiditeko asmoz Garraioaren Hiria drenatzen duen erretanaren ubidea egokitzen ari dira, T=500 urteko errepika-denborako uholdearen ura husteko adinako ahalmena izan dezan, betiere artoaren isurketa-koefizientean Garraioaren Hiriko zolaketak eragin ditzakeen aldaketak kontuan izanik.

Lan horiek gauzatzeko 1998ko uztailaren 29an Nafarroako Gobernuaren, Imarkoaingo Kontzejua eta “Ciudad del Transporte, S.A” sozietate publikoaren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatu zen Imarkoaingo udalerrian Kalamutz edo Talleuntzeren erretan bideratzeko obrak egiteko. Hitzarmena Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren uztailaren 28ko 2694/1998 Foru Aginduaren bidez onetsi zen. Kontrata bidezko obraren exekuzio aurrekontua 34.733.466 pezetakoa da eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak finantzatu du.

Une honetan obrak exekuzio fasean daude.

2.- Garraioaren Hiria eraikitzeke pasatzen diren kamioiek eragindako kalteak konpontzeko eskatzen ari da Imarkoaingo herria. Nafarroako Gobernuak zer aurreikusi du konponketa horiek bideratzeko?

Nafarroako Gobernuak Imarkoaingo herriak egindako erreklamazioak aintzat hartu ditu eta egoki irizten dituen jarduketak egingo ditu errepideak zaintzeko planaren barruan eta dagokion lehentasunaren arabera.

3.- Nafarroako Gobernuak ez du erantzukizunik hartu elkar ulertzeko bidean. Zer jarrera hartuko du Nafarroako Gobernuak kaltetuek epaitegietan egin duten erreklamazioa dela-eta?



Ondarearen erantzukizunengatiko kalte-ordainen erreklamazio guztiak Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren Ondare Zerbitzuan aurkeztu behar dira. Horrek balioztatuko du kalteen egoztea, eta hala badagokio, legokiokeen kalte-ordainaren zenbatekoa. Hori dela eta, guztia aipatutako departamentuak ondare-erantzukizunaren espedientean erabakitzen duenaren arabera izango da. Bide hori auzibidean Nafarroako

Gobernuari edozein erreklamazio egiteko aurreztiatzeko eta beharrezko bidea izango da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 30ean.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:  
José Ignacio Palacios Zuasti

## “José M<sup>a</sup> Iribarren” ikastetxeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunak “José M<sup>a</sup> Iribarren” ikastetxeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitatu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 7an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “José M<sup>a</sup> Iribarren” ikastetxeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna.

1. Zer helburu zuen, bere garaian, “Jose M<sup>a</sup> Iribarren” ikastetxe publikoa eraikitzeak?

Ikastetxe publiko bat eraikitzeak, eta are gehiago derrigorrezko irakaskuntza mailakoa bada, helburu bera du beti, hau da: une jakin batean eta leku zehatz batean diren heziketa beharrei aurre egitea.

2. Zer gorabehera gertatu da aipatu ikastetxea helburu horrekin bat ez etortzeko orain?

“Jose M<sup>a</sup> Iribarren” ikastetxe publikoa uztailearen 14ko 188/1997 Foru Dekretuaren bidez deuseztu zen, urtez urte bertan matrikulatzen zen ikasle kopurua gutxituz zeterrelako. Ikastetxe horretako zuzendaritzarekin, irakasleen klaustroarekin eta neurriak ukitutako familiekin bat hartu zen aipatu erabakia duela urte eta erdi, baina neurri horrekin batera, irakasleei beste ikastetxe

batean bermatu zitzaien lanpostua eta familiei eskola-distritu beraren barruan beste ikastetxe batean hezitzeko aukera eman zitzaien.

3. Nork eman du baimena aipatu ikastetxean helduen etengabeko hezkuntzako ikastaroei dagozkien gaiak irakasteko?

Irakaskuntza arautua emateko baimena Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuari dagokio.

4. Departamentuak ez al du beste lokal edo instalaziorik aipatu ikastaroak garatzeko?

“Jose M<sup>a</sup> Iribarren” izeneko eraikinean, 1982/83 ikasturteaz geroztik ematen dira helduen etengabeko hezkuntzarako ikastaroak. Duela urte eta erdi, D ereduak “Eunate” bigarren mailako hezkuntza institutua sortu zenean, eraikin horretatik atera behar izan ziren bertan egoten ziren helduen hezkuntza, dantza eskola, gizarteratze institutua eta gelditzen zen hipokausikoen egoitza. Orduan erabaki zen “José M<sup>a</sup> Iribarren” hezkuntza zentro deuseztuan pilatzea helduen hezkuntza guztia, alfabetizatze programetako izan ezik, eta Batxilergoa Urrutitik egiteko Nafarroako Institutua. Une honetan, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ez du beste instalaziorik irakaskuntza arautua emateko.

5. Nork eman du baimena aipatu ikastetxean “gizarteratzeko teknikari espezialistaren” hezkuntza zikloei dagozkien gaiak irakasteko?

Jada esan den bezala, irakaskuntza arautuak ematea Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren eskuduntza da. Gizarteratzeko bigarren mailako irakaskuntza “Eunate” ikastetxetik etorri zen, bertan D eredia ezarri zenean.

6. Aipatu ikastetxeak betetzen al ditu aipatu hezkuntza zikloak emateko baldintzak?

Bai.

7. Nork eman du baimena ikastetxeko bi gelatan parrokiako bulegoa egoteko?

“José M<sup>a</sup> Iribarren” ikastetxeko leku asko noiz-behinka erabiltzen dira gizarte intereseko jarduerak burutzeko (adibidez, euskara irakasteko), beste edozein ikastetxetan egiten den bezala, baldin eta zentroko jarduerak oztopatzen ez badira, urtarrilaren 9ko 2/1995 Foru Dekretuan ezarritako arekin bat, horrek erregulatu baititu unibertsitate mailakoak ez diren ikastetxe eta ikastegiak, hala nola hezkuntza erabilerako kirol instalazioak.

8. Zerk eragozten du José M<sup>a</sup> Iribarren ikastetxe publikoa D ereduko haur hezkuntzako bigarren zikloari dagozkien gaiak irakasteko erabiltzea?

Lehendabizi, jada ez dago haur eta lehen mailako hezkuntzako “José M<sup>a</sup> Iribarren” ikastetxe publikoa. Dagoena da helduen etengabeko hezkuntza, gizarteratzeko bigarren mailako institutua eta INABAD hartzen dituen eraikin bat, baina haur

eta lehen mailako heziketa zentro berri bat sortzeko bertan lekurik ez duena.

9. Zer berezitasun du aipatu ikastetxeak irakaskuntza eta irakaskuntzaz kanpoko jarduerak hartzeko bere baitan, eta halere, D ereduko hau hezkuntzako ikasturtea ematea ezinezko izatea? Izan ere, jendea mugitzen hasiz gero, helduak eramatea hurrak tokiz aldatzea baino errazago baita.

Galdera honek izan du erantzuna aurreko galderan esandakoaz. Edozein modutara, indarrean dagoen legeriak heziketarako formula batzuk eskaintzen ditu, leku jakin batean dagoen eskariak dauden plazak gainditzen dituenetarako. Legeri hori aplikatzen da Nafarroan, hain zuzen ere, egoera hori gertatzen den guztietan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 2an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

<p><b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b></p> <p><b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b></p> <p>Urte bat ..... 6.000 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 140 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 175 » .</p>	<p><b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b></p> <p><b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b></p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
--	---